

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lizartza



Aurkibidea

Udalerria: Lizartza

Sarrera



Lizartza Gipuzkoako ekialdean eta Tolosaldeako eskualdean dagoen udalerria da. Araxes ibaiak udalerria zeharkatzen du Leitzaldetik etorrita Tolosarako bidean. Lizartzak iparraldean Leaburu eta Gaztelurekin egiten du muga; Ekialdean, Gaztelu eta Oresa ditu; Mendebaldean, Altzo; eta, Hegoaldean, Araitz (Nafarroa), Gaztelu eta egun Tolosako auzoa den Bedaio. Hainbat auzok osatzen dute Lizartza herrigunearekin batera: Basaizaldea, Ermitalde, Elizondo, Elbarren, Iturralde, Lartzalde, Lezialdea... Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 637
- **Euskaldunak:** %82,87

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **200**
- Transkribatutakoak: **27**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **199**

Proiektuak

- Lizartzako ahotsak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Anjela Arruabarrena Sarasola (1933)




Ipintza baserrian jaio zen aitaren jaiotetxean. Juan Inazio Arruabarrena zuen aita eta Juana Sarasola ama, biak ere lizartzakoak eta baserritarrak. Halaxe izan zen bera ere txiki-txikitatik 77 urte arte aritu baitzen baserriko lanetan ia bururik altxa gabe. Zortzi senidetan gazteena, ez zuen neskame joateko aukerarik izan bai ordea eskolara joateko.

Clara Antonia Arruabarrena Sarasola (1919)



Ipintza baserrian jaioa, aitaren jaiotetxean. Bertan bizi izan zen 24 urte arte. Joakin Altunarekin ezkondu eta Juangi baserrian bizi izan da harrezkero. Lan ikaragarria egindako emakumea da, baserrian eta etxean, eskolarako denborarik izan gabe. Zortzi senidetan bigarrena, senideak zaintzen ere aritu zen urte mordoan, baita neskame ere Tolosan. Gustukoen duena gazta egitea da, eta datozen belaunaldiek gazta egiten ikasi ez dutelako arduratuta dago, ikaskuntza hori eten egin delako. Sei seme-alaba, 14 biloba eta 10 birbiloba izan ditu.

Joxepa Artola Artola (1930)



Amezketako Uhartan jaioa, Zuritza baserrian. Aita Uhartekoa zuen eta ama Alegiakoa. Bederatzi senidetan zortzigarrena. Sei urte zituela, Lizartzara etorri zen bizitzera bere familia. Hala, Lizartzan hasi zen eskolan. 13 urterekin, eskolak bukatutakoan, umezain joan zen, Lizartzako beste baserri batera. Beranduago, Lizartzako Andresoro baserrira joan zen neskame, eta bertako semearekin ezkondu zen.

Joxepa Atxega Olasagasti (1932-2021)



Orexakoak zituen gurasoak. Legasa baserrian jaio zen beste zortzi seniderekin batera. Txiki-txikitatik baserrian lagundu zien gurasoei, eta hala pasa zituen 23 urte. Ondoren, neskame lanetan aritu zen bi urtez. 25 urterekin, Kaxiano Ibarguren Molinaga 'Kaxa' soinu-jole ezagunarekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituen. Orexako eskolan Nikolas Ormaetxea 'Orixe' izan zuen irakasle, eta oso gogoan du nola etorri ziren haren bila gerra garaian. Gerra garaiko kontuak, Orexako gazte denborak eta Lizartzako hamaika kontu kontatu dizkigu.

Pello Garaikoetxea Gibelalde (1930)

Garaikoetxean jaio eta bizi izan zen 36 urte arte. Lizartzakoak zituen gurasoak, Miguel eta Vitoriana. Azken hau, autobus-gidaria zen eta Orexatik Tolosarako bidea egiten zuen. Gurasoek, okindegia, jatetxea eta denda zituzten etxe azpian, 'Fonda Larreanea' izenpean. Hantxe hasi zen Pello gaztea zela ogia egiten. Atallun ere pasa zuen urtea bertan jarritako okindegi batean lanean. Zazpi senidetan bigarrena izanik, oso gazte hasi behar izan zuen bere kontura lanean, eta, 13 urterekin, Tolosako Larramendi kaleko 'Uzturre' garajea hasi zen mekaniko gisa. Gerora, Andoaingo eta Txaramako garajeak ere ezagutu zituen, kamioiak eta eskabadorak konpontzen aritu baitzen. 40 urte inguru pasa zituen lanbide horretan, eta oso gertutik ezagutu zuen garraiobideen mundua. 36 urterekin, Mari Paz Armendariz Laplace irurarrarekin ezkondu eta Tolosan jarri zuten bizitokia. Handik Anoetara aldatu zuten etxea, eta azken urteak Iruran pasa dituzte. Bi alaben aita da.



Jose Goikoetxeaundia (1868)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Erretorea, 45 urte zituen grabaketa egin zitzaionean.

- Diskoaren erreferentzia: 2.228, 2.229 eta 2.230

Manolo Ibarguren Molinaga (1929)

Legazpin jaio bazen ere, lau urterekin Lizartzara joan zen bizitzera aita bertako zentrolean lortu baitzuen lanpostua. Zazpi urte zituela, aita, Emeterio Ibarguren nazionalista zela-eta, fusil batez zauritu eta erreka alde egitea lortu zuen. Hiru urte beranduago hil zen. Handik lau urtera, Martzelina Bolinaga, ama, galdu zuen. Hala, 14 urterekin umezurtz geratu zen beste lau seniderekin batera, tartean, Kaxiano soinujole ezaguna. Beharrari erantzunez, morroitzan aritu zen Martutenen lehenik eta Hernanin gero. Lan egiteko baimena lortzean, Txaramako 'Araxes' paper-fabrikari hasi zen lanean. Kaxiano anaia bezala, soinujolea zen Manolo ere. Morroitzan irabazitako txanponekin erosi zuen lehen soinua, eta harrezkero plazaz plaza aritu zen inguruko herrietako giroa berotzen.



Mahai-ingurua Lizartzan



Honako hauek hartu zuten parte 2011ko urriaren 24an Lizartzako zaharren egoitzan burutu zen tertulian. Ezkerretik hasita, Maria Zinkunegi Agirre (1934-02-02), Sagrario Urdanpilleta Gogorza (1933-04-20), Sagrario Soroa Iturrioz (1932-03-27) eta Luxia Garmendia Garmendia (1932-12-12).

Joxe Mari Zinkunegi Agirre (1932)



"Kalen erdin" jaioa, Ezkurranean bizitu zen ondoren. 25 urte zituela Sagrario Soroarekin ezkondu eta Gogorzanera joan ziren maizter. Handik, plaza ingura joan zen bizitzera. Hainbat lantoki ezagututakoa da. Gaztea zela morroi lanetan aritu zen 15 urte bete arte; 'Insalus'-en, lima fabrikan eta 'Araxes' paper-fabrikan ezagutu zituen ondoren. Gizon polifazetikoa inondik inora, soinu-jole bikaina eta bertsolari aparta, bertsoak osatzen ezezik, 'Txirrita' eta 'Uztapide'-ren hamaika bertso gogoan ditu oraindik. Hala kontatu eta kantatu digu berak bizitakoak bere anaia [Julian](#)ekin batera.

Julian Zinkunegi Agirre (1930)



Lizartzan jaio eta bizi izan da beti. "Kalen erdin" jaio eta Zuloagara ezkondu zen Manuela Orbegozorekin. Sei seme-alaba izan zituzten, eta horiek aurrera ateratzeko gogor lan egin izan du. Morroi lanetan aritu zen gaztea zela. 14 urterekin, Txaramako 'Araxes' paper-fabrikan sartu zen, eta bertan egin zituen 48 urte. Igandetan eta denbora librearen aldiro, artzain lanetan aritzen zen, hori izan baita Julianen zaletasunik handiena. Bere anaia [Joxe Mari](#)ekin egin zitzaion elkarriketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Francok gerrako gastuak ordaindu behar zituen

- **Hizlaria(k):** Artola Artola, Joxepa
- **Elkarriketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LIZ-001/005
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:09:11. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Ogia baino gehiago taloa jaten zen. Herriari entregatzen ez zitzaiona etxean jateko izaten zen. Francok gerrako zorrak ordaintzeko biltzen zituela gauzak esaten zuten; horregatik arrazoinamendua ezarri zuten. Olioaren orde ezne gaina erabiltzen zen. Txerria hiltzen zuten etxean.

Transkripzioa

-Ta ordun etxetan ze jaten zenduen? Talok gehio?

-Ekartzen zanen bai, taloa gehio ogie baiño. Ogie ´re bai, garie itten zan etxen ta, baiño taloa gehigo. Egoardin jenealen ogie, baiño goizen ta gauen ta hoitan taloa. Ta hure zanen gustoa gaiñea! Kale alden hure bare ´re zeatzen zien ta.

-Ta ordun baserritan entregatu ein behar, gaiñea, kartillakin ihotzeko gariya ta artoa, ta halare moldatzen ziñaten?

-Bueno, entreatu ez zan... Patata ´re hoinbestetxu bat, ez zien dena entreatzen. Klaro, ta gaiñea jota ´re orona ´re bai ta... Entreatu ba al dakizu ordun zer? Esaten zuen, soldaduk eta kanpotiken ekarri zittun zeak, Francok. Eta han in zittula zorrak. Eta zor haik zeatzeko hemendik jendea kendu, eta handiken kendu olio ta zeak, hoitatiken, ta honea. Ta hemen errazionamentun olio ta.

-Ta estraperloko oliyua garesti?

-E?

-Estraperlon, oliyua garesti...

-Olio bai. Olio garai hartan goatzen zat nei, litro olio hoge duro eo pagatu det /pagatuet/. Baiño, ahal zan bezela. Oain bezela ez zan txerri mantekaik-eta sobratzen, e? Manteka ta, zea, grasa zula ta olio, eo esnegaiñen zea botata ta. Eta kilo azukrea lau launentzako igual. Litro olio hil guztiako. Errazionamentue. Ta bestela zeatzen zana, zea, asko pagatu behar. Razionamentun hure.

-Ordun, txerriya hiltzen zenduenian...

-Txerrik, bi txerri ta, beharko! Ordun, haren, badakizu, manteka izaten du ta! Hura gorde ta, handik...

-Nun gordetzen zenduen?

-Manteka, ordun, txarro, lurrezko txarro-eta izaten zien, ta haitan. Txoixok ´e bai. Txoixok ´e lurrezko, hola, eltze haundiyetan, ta haitan manteka tarten ta sartu ta geo etxeako. Ta handik kutxarakaa manteka bota zeai ta, hola. Beharko! Ahal dan bezela.

1.2. Gerrako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:14:53. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

- **Laburpena:** Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu. Erreketeak edo "naparrak" Narbaitzu mendi aldetik Lizartzara nola pasatu ziren gogoratzen du. Osaba bat fronte hil omen zen.

Transkripzioa

- Ta gerra garaiko beste oroitzapenik hola zuk ikusi eo bizi zenunik?
 - Bizi, nik zea bat dauket, nola reketeak eo Naparrak eo ez dakit ze esaten zuen ba mendin zeharra sekulako saillen nola pasa zan honealdea, Lizartza aldea. Orexatiken beste mendi bat hortxe, zean dauna Arbaitzu mendia esaten diyouna ba hortik zehar hue dauket begin aurren oandioken ´e. Umea, baiño eta baiño etxea sartutzen, sartuazten giñuen seittun holako gauzik! Eta gero bai, aman anaia, hoge urtekoa, frentea eaman zuen ta hue're hil in zuen, hil frente baten hilko zan, baiño geo arrastoik ez zuen atea nun hil zanik eta bai rekuerto tristeak'e bai.

1.3. Nafarroako galirina

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Ogia egiteko galirina erabiltzen zuten. Arto-irina, berriz, taloak egiteko. Nafarroako galirina erabiltzen zuten (Lekunberri, Noain... aipatzen ditu). Irina errazionamenduan omen zegoen, eta herri bakoitzari hainbesteko bat zegokion.

Transkripzioa

- Eta ze irin erabiltzen zenuen?
 - Iriñe? "De trigo, de trigo, harina, harina". Ibiltzen gendun zea artoana, baiño talok itteko ta hola, etxeako talok itteko ta.
 - Saltzeko beti garina?
 - Ogie itteko garina, bai.
 - Eta nundik lortzen zenuen?
 - Ba hoi guri ekartzen zuten Naparrotik, Pamplona inguruko herri hoitatik. Batzutan Lekunberrin'e bazan fabrike bat, hortik zaku batzuk ekartzen zien noizin behin. Klaro, hoi hoi izaten zan ordun iriñe're rasionamentun bezela-o ta kamionan segun nun kargatzen zuen, harek ekartzen zun, bueno ba Lizartzako [...] txoferrak jakiten zun, bat-o bi-o hiru-o zenbat izango zien ta hala etortzen zan, batzuk Pamplonatik bestea Noaindik, bestea Naparroko, Naparroko herri koskor hoitatik, bertatik.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Heriotzaren inguruko ohiturak

- **Hizlaria(k):** Artola Artola, Joxepa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LIZ-001/015
- **Iraupena**: 0:05:51. **Hasi**: 00:24:16. **Bukatu**: 00:30:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Garai batean, hildako bat zegoenean gorputza etxean edukitzen zen. Lur-eman eta gero bazkaria ematen zen etxean familiakoentzat. Hildakoarekin norbait egoten zen beti, arrosarioa erreztatzen. Baso batean ur bedeinkatua jartzen zen eta ondoan erramua. Apaiza ere etxera etortzen zen, bidean kanpaia joaz. Inguruko norbait arduratzen zen 15 misterioko arrosarioa errezatzeaz. Elizara bizkar gainean eramaten zuten, lau lagunen artean.

Transkripzioa

-Garai hartan, eztakit ba, pertsona bat hiltzen zanen o, diferentia zan, ezta? Etxen eukitzen zan...

-Etxen gorputze.

-Nola zan hoi?

-Etxen hiltzen zan ta, meikue ta zeatukatik etxen hiltzen zan. Etxen gorputze. Ta geo hogeita lau ordu o hola enterratu genealen. Bueno, batzuk gehixeo, noiz hiltzen zan ta. Ta etxetik, etxetiken entierroako zea ta jendea zeatu ta. Geo bazkarik eman.

-A bai?

-Ba guk nola parientala hemen ez gendun /ezkendun/ Lizartzan garai hartan... Gero bai, gero nere senidek´e bai ta gizonan aldeko senidek´e hemen, baiño gizona´re ez zan hemengoa berez, bi urtekin eo etorri hua´re Amezketakoa, eta kanpon zeak, parientala, ta haiek bazkarie eman itten zittuen ta, handik zetozenai´e bai. Oain atsalden ta hola ittea, baiño garai hartan goizen itten zan bazkarie, eo zea, entierroa ta. Jende saillei bazkarie eman. Bai zu. Hiltzen zana hil itten zan, baiño geatzen zana´re nahiko hille, zorrak ezin pagatuz.

-Ta, etxen eukitzen zan denbora hortan, ezin omen zan gorputza bakarrik utzi, ezta? O...

-Ez, han bakarrik ez zan uzten, batenbat eoten giñen. Kuarton eo, kuarton eo... ohian, genealen ohian gaiñian, bestittutzen zan ta ohian gaiñen. Ta jendea, errosarioa ta, etxea etortzen zan ordun hildakon zean ta, hola.

-Ipintzen zan erramua o...

-Bai erramue basoan ur bedeinkatukin erramue, ta hari bota. Ta lehenao´re elizeok ziela ta, elizeok ziela ta lehenao´re gaixo zeola´re...

-Ze iten zan?

-Gaixo zeola´re, zea, apaizak jaune eman ta, apaiza etorri ta jaune eman ta eitten zizkion ta. Oaingo kontuik ez zan ordun.

-Nola izaten zan hoi?

-Hoi, gaixo, oso gaixo o hiltzeko zean baldin bazan, elizekok esaten zien, ba, hare bedeinkatzea estremauntzioa ta eman ta itten zizkien.

-Hoi zer zan, hola oliyuakin bezela?

-Bai.

-Ta nola etortzen zan estremauntziyua ematea apaiza?

-Apaiza? Jantzita, ta biden kanpana zeatuz ta, biden tokatu ezker o jendea belauniko jarri igual ta! Monagillokin ta.

-Momentu gogorra izango zan, ezta? Estremauntziyuana.

-Bai, baiño ya etsita izaten zan ordurako ta .

-Ta errosaiyua esaten zanian, ba al zan pertsona bat hortaa juten zana o...?

-Hemen ingurukon bat izaten zan. Hamabost misteriokoa. Gure illoba, bueno, alaba, Usurbillen daon zaharrena ta, haren semek hala esan omen zun: "Ama, esan ta esan ta esan ta esan, lehengoa esan ta lehengoa esan. -Hamabost misterioko errosarioa, ta zuk badakizu?- Hamar aldiz zea esan ta berriz segi ta berriz segi, hau zer da? Lehengoa esan ta lehengoa esan ai da!"

-Ta pertsona hoi ordun hemen ingurukoa izaten zan?

-Bai, hemen baserri inguru o, genealen errosarioa esateko ingurukok zeatzen zun.

-Ta gero, ordun, elizaa eamaten zan entierroako?

-Entierroako elizea.

-Ta nola eamaten zuen?

-Hemendiken bizkarrean lau launek. Hau, lokaztik zien, gaiñea, bide hau lokatza zan! Kamiñoa in bitarten, kamiñoa nik ez dakit /eztakit/, berrogei bat urte o hola die. Ta hemengo amona ta lehenao hil zien ta, hola, lau launek. Kaja bizkarren, behera. Ta gero handik kanposantura´re bai, elizen entierroa zeatuta.

-Ta, urrutiko baserrik baldin bazien o?

-A, urruti [...]

-Bai, bastante. Bide deskantsuik iten al zuen o?

-Ez det /eztet/... Bueno, zeak izaten zittuen, hola, jartzeko behera palok bezela, ta deskantsue ingo zuen. Gizonezkek zeatzen zuen.

-Ta zein aukeratzen zan kaja eamateko?

-Kaja emateko... Guk lehen auzokok o. Attona zeak batzuk... Gero illobak eaman zuen amona, bere billobak. Billobak hazik orduako bazittuen ta, beren aldeko billobak. Ta genealen, hola, senidek baldin bazien sasoikok o, auzokon batek eo, hola.

2.2. Nikolas Ormaetxea 'Orixe' maisu

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/004
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Umea zela, Orexako eskolan zebilela Nikolas Ormaetxea Orixek izan zuen maisu. Erreketeak eskolara bila joan zitzaizkiola gogoratzen du. Orixek eskolatik nola egin zuen ihes, gordeta egon zela, Uitzira (Nafarroa) eraman zutela... kontatzen du.

Transkripzioa

- Bale, ordun ai ziñen esaten 'Orixe' euki zenula maixu bezela?

- Bai. Ez zan izango denbora luzean. Ba ni akordatzen naiz, nola jun zitzaizkion eskolara bere billa, reketeak-o bere billa. Bueno, guri pizarran ai zan "a e i o u" "o lo que sea" letrak erakusten. Ta atea jo zuen ta ez gendun ikusi, zeatikan oso bea atea zan atea eta izango zan "esto" bere arreba. Nola, bidean tokatu izango zan ba zea hoikin, bere etxea bille zijoala.

Galdera ingo zien 'Orixe', bueno, Nikolas Ormaetxea zan, hari, haren galdezka eta bere arreba zan kasualitadez. Ta harek esan ba holako tokitan bizi da ta bea jungo zan anaiei abixatzea. Bidian tokatu, ezta? Bat jungo zan, ba ez dakit, borda-o antzekoik. Arreba hoi ta hari galdetzea tokatu, bestela eozeiñek esango zion “ba eskolan ai da”-o hola. Hala beherko zun.

- Ta harek beste toki batea biali zitun?

- Ez. Bialdu zittun etxea, baiño harek bazekin anaia nun ai zan. Ta harek arreba jun zitzaion. Ez gendun ikusi. Guri eakusten ai zan makille eta tiza bota, izkutatu zan, atea zan, iñork arrastoirik bare. Ta belaxe zea hoik reketeak. Oaindiok'e pizarran aurren han geunden, hua akordatzen naiz. Ta nola geo mutille haundintxuna batek atea iriki zun ta aber nun zan maixue ta galdezka ta arrastoik ez. Ta arrebak abixatu zionean, ba saltatu-o hue zan aurrekaldeko atetiken ez zan atea, atzekaldean leihok bazeuden beherago jeitsita, beste piso bat beherago jeitsita eskolan, ta leiho haitako batetiken salto inda jun zan behera. Eta baserri Legasa hoi beheran dago, beheran osea eta in zun gure etxean sartu. Eta ama billatuko zun han ta hari esan zion nola zittun bille etorri zitzaizkion ta nola zijoa ihasi ta nun geldittuko zan. Osea nun izango zan gutxi gorabehera. Eta gure etxetiken'e behera erreka jeitsi, erreka erreka jun zan arrastoik ez zan, bazekien nola eskibatu gauzek'e. Ba erreka erreka ba holako tokita. Bordak, bordak zeuden tokia ta gero handiken ba hola sasi haundi bat zan, oain'e uste det hala eongo dala, haundie sasie osea, ta halako tokitan gordeko zala. Eta gero ba egunek pasatzen, ba kontuatzen giñen gabea jana preparatuta nola ematen zien osabak eta harek, borda ekartzen zuen lo itteko. Han lo in ta atzea berriz eunez gordetzea. Holako istorik eta tenporada pixka bat hola pasako zuen, baiño eoten ez zekin hoitakoa zala esaten zuen ta ateratzen eta baten batek ikusi, zein batek ta bai ba orduko zabalduko zan zea nola zen ta, baiño gero ba in zuen hortiken'e Uitzia pasa zuen gauzez nolabaitte, nolabaitte. Zien nere aitte ta bere anaiek'e han zeuden baserrin, ordun mikelietak zien ta batei hanka moztu're in zien Bilbon ta bestea Pasaian mikeliete zeudenak, osea garai ordun, eta gero ba hoik ezer bare gelditu zien, ez mikeliete ta ezer ez ta baserrin zeuden harek junda beren familikin ba baserrie haundie da-ta han jende pillo bat. Ba hoi dauzket gogoan hola.

- Ta Uitzia pasa zuen ta geo harrapatu zuen-o?

- Ez, Uitzin denbora asko in zun gordeta, han'e ta han gelditu zan ba gero ibili're ez, ta bakizu, dena goortuta, belar pillen eo ez dakit nun eoten zala gordeta esaten due Uitzin. Ta gero handiken ba geo pasa zuen hauzkaldea.

- 'Orixe' bakarrik?

- Ez, Frantzi alde.

2.3. Eskolako zigorrak, "anilloa" eta gela iluna

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/014
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan ezin izaten zuten euskaraz hitz egin, nahiz eta gaztelaniaz ez zekiten. Eratzunaren zigorra jartzen zieten euskaraz ez

hitz egiteko. Eraztunarekin gelditzen zena zigortuta gela ilunera sartu ohi zuen maistrak.

Transkripzioa

- "Anilloa" izaten gendun kastigue. Hoi ez al dezu behin'e "anilloa".
- Erderaz, euskeraz hitz eiten bazun belaxe batak besteai eantsitzen, zea. Ta atzena gelditzen, hari gelditzen zanak kastigoa izaten zun. Eskolan ez gendeken euskeraz hitz eitteik, erdera. Hoi da lana.
- Baiña "anilloa"na ez det ulertu oso ondo.
- "Anilloa" ba "anillo" bat, "aro" bat izaten zan soka batekin ta hue harekin atzena gelditzen zanak kastigatu, bata besteai: "A euskeraz hitz ein du, benga horri".

2.4. 'A tres ovalos' jolasa

- **Hizlaria(k)**: Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: LIZ-007/016
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:26:24. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskola garaiko kontuak. Ez zuten jostailurik. 'A tres ovalos' izeneko pilota jolasa nola izaten zen azaltzen du. Bi talde izaten ziren, ' Kuku miku, anda miku, txantxa perro...' abestu ohi zuten zortz eginez bi taldeak banatzeko.

Transkripzioa

- Ta jolastordun, eukitzen zenuen jolasen bat eo jostailuik eo nola pasatzen zenuen?
- Jostailuik? Bai, bestelako jolasak. Jolasak? Bai, bai, dibertigarrik bai. Oain ez dittut hemen sumatzen halako jolasakin baiño ez dakit. 'A tres ovalos' esaten giñun pelota joku bat bazan.
- Nola zan?
- Ba plazan jarriko ziñun tiza batekin, o bueno zea bat markatuko zendun raya bat eo ta gero egiten zian ba hiru obalo, triangulo bat balitz bezela. Eta bi bando, bi partek itten zan "kuku miku anda miku txantxa perro" halakoikan zeatu ta "la don [...]mano" separatu zezan kuadrillen, bi kuadrille itten zien ta kuadrille bat jarriko zan rayaz hauzkaldetiken ta pelotakin iten zan. Besteak beste aldetik, obalok zeuden tokin. Ta pelotakin botako zizun, joko, osea rayetatikan fuera eo kanpoa botatzen bazendun, galdu itten zenun. Ta barrun eusten baziozun, ba pelota jo eta obalo batea pasatzen ziñen. Bitarte hortan, han zeudenak pelota harrapatu ta jo in behar zeniye zuk. Obaloa sartzen baziñen, salbatua zenden. Ta hiru obalo pasatzen zendun.
- Ta zenek irabazten zun?
- Ba irabazi, irabazi iñork askok ez, zeatikan denak galtzen zan ta.
- Jende gehiena geatzen zan aldeko?
- Bai, bai, bai, bai ta hola.

2.5. Oinetakoak, bideak eta autobusa

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/029
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Ume garaiko arropa eta oinetakoei buruz hitz egiten du. Tolosara joateko, Oreatik Lizartzara oinez joan ohi ziren, eta han hartzen zuten Tolosarako autobusa. Beti ezagutu omen du errepidea Orexan.

Transkripzioa

- Oain dauden, ordun abarka zaharrak ta zer oiñetakoak, ze erropak eta ze ze gauzekin. Ta benga, korri. [Biaje] earran zaharrak. Segitzen ordun, kotxek eta ixtorik. Oreatiken'e Lizartza etorri behar zendun, autobusa bat hartu behar baldin bazendu. Tolosa jutea nahi baldin bazendun, ba honea oiñez eta etortzea bakarra, geo jun in behar zendun. Gui ez zitzaigun sekulan okurrittu. Izango zan, gerra aurren izango zan harea autobusak eta bai, nik nik ez nun ezautu, baiño. Karretera're nik karretera inda ezautu det, baiño pixka bat lehentxexeago izango zan in zuena.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Errepiderik ez

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Sarasola, Clara Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-006/004
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserrria » Baserrriko lanak » Baserrriko animaliak
- **Laburpena:** 24 urte zituela, Juangi baserrira ezkondu zen. Garai hartan, ez zegoen errepiderik. Idiekin ibili ohi ziren. Behin errepideak egin eta gero etorri ziren beste aurrerapenak.

Transkripzioa

Gu, gaiñea, gero ni honea ezkondu nitzan garaian, 24 urtekin ezkondu nitzan, eta hemen, idik, idik zien, ez zan, karreterik ez zan ta, ezer ez. Ta geo hasi zien karreterak eta gauzak, ta geroz karreterakin ta gero traktoreak eta gauzak ekarri zittuen.

3.2. Aitona eta ama autobus gidariak

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/024
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:33:16. **Bukatu:** 00:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena:** Pello umea zela, aitona eta ama autobus gidari ibiltzen ziren. Orexa, Lizartza eta Tolosa arteko zerbitzua ematen zuten. Larunbat eta astelehenetan joan ohi zen jendea Tolosako feriara.

Transkripzioa

- Gu geok'e etxen bagendun. Ni, nik ttikie nitzala aittona ibiltzen zan zeakin ta nee ama're bai txofer autobusakin Lizartzatik Tolosa. Gu ge[ndun], bai, bai, bai, bai. Amak, nee amak karneta zun, holakoxe karneta. Bueno, holakoa. Ordun izaten zan bezelakoa baiño, bai: Oreja lanbatetan ta astelehenetan, Orejatik, Oreja-Lizartza-Tolosa ta geo bueltan igual. Ferie itten baizan lanbatetan ta astelehenetan Tolosan ta.

- Ba garai hartakoa izateko, ez zien emakume asko eongo autobusa gidatzen zuenak?

- Gutxi, gutxi, oso gutxi. Oain'e emakumek asko ibiltzen die, kamionakin baita hemen estranjerin, kamion haundigokin estranjeriatik.

- Ta ze esaten zien ba emakumea zalako ta autobusa gidatzen zulako?

- Ezer ez.

- Zeoze esaten zien: "mujer al volante, peligro constante" ta holako txoakerik?

- "Chorradas, esas chorradas que se dicen", ordun ez zan. Ordun, gaiñea nik egia esan txikia nitzen ta juxtu-juxtu akordatu itten naiz, baiño aitte bai, aitte ta ama're bai. Baiño aittona ta hoik, hoik bueno, ordun normal ibiltzen zien. Ez zan oain bezela ez zitzaion.

- Ondo ikusita zeon emakumearen imajena?

- Bai, bai, bai, bai. Gutxi baitzan gaiñea, txofer gutxi jende gutxi ta. Bueno, kamiona're gutxi, proporzion dena.

- Ta nolakoa zan ba Orexa-Lizartza-Tolosa rekorridoa?

- Tolosa, Tolosa Lizartzatik Oreja dena holaxe, beheti gora, aldapa. Zittun, zenbat, hiru bat kilometro. Bai. Lizartzatik zeara jutea, Betelua ta hoita jutea. Bueno ba Lizartzan salidan, seittun Orejako zea hartzen zan, kamioa.

3.3. Garai bateko autobusa

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/026
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:38:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena:** Garai bateko autobusak nolakoak izaten ziren, bidaiaren prezioa, geltokiak non ziren... Lizartzako autobusak 30 lagun ingururentzako lekua izaten zuen. Jendea zutik ere joan ohi zien. Gainaldean, parrilla izaten zuen saskiak-eta uzteko.

Transkripzioa

- Ta esan dezu autobusak ziela oain baiño itsusigok eta diferentegok. Nolakok zian?
- Ta ttikigok! Ttikigoak eta [...] ordun ba, zenbat zea izango zuen gaiñea, zenbat, ze kabida izango zuen autobus hoik? Hoita hamar batentzako hola? Autobusak ttikik zien, geo hasi zien pixkana.
- Ta zutik juten zan jendea autobus barrun?
- Jesus! Bai. Oaingo kontuik ez zeon. Oain eaman behar, zuti, [...] botako lizuke, joder. Eseita. Zuti're ordun bai "de todo, de todo". Eseita, zuti.
- Ta gerrikoa lotzeko?
- Ez zan ezer'e ordun. Ordun ez zan, oain, oaingo berrik die, traste berrik.
- Eta baten batek aberek eta eamaten baldin bazitun saltzea, hoik nun sartzen zenun?
- Saltzea, hoi kamionetan, kamioneta txiki hoitan.
- Autobusen ezin zan animaliak?
- Ez, ez, ez. Autobusan eamaten zendun "lo único" gaiñen, autobusan gaiñen eamaten zun ba parrilleo bat bezela izaten zun hola, gaiñen. Ez eroitzeke kostauta ta izaten zun ba arrautzek, saskik eta baserriko gaztak-eta, ze eamaten zun feria ba saskik gaiñen.
- Hoi zan maleteroa esaten zaiona tetxun?
- Maleteroa? Gaiñen dena, ordun maleteroa kotxeak izaten zun bakarrik, bai.
- Ta zenbat balio zun biaje batek, billeteak?
- Lizartzatik Tolosa? Zenbat balioko zun? Ez dakit ba nik, bi pezta? Holakon bat.
- Ta nun zan parada? Geltokia nun zan autobusea iyotzekoa?
- Iyotzekoa? Han Lizartzan, gue etxe ondon ta biren'e bazien beste batzuk, Txaraman ta. Ta Tolosan, berriz, zun fijoia Plaza Zaharra aittu izandu al dezu behiñ'e? Plaza Zaharra? Lehen aiuntamientoeko plaza. Han, hantxe zun parada.
- Hareaiño iristen zan?
- Parada bai. Harea aillatu, hustutakon buelta emanda jartzen zun berriz bertan.

4. Familia eta harremanak

4.1. 'Orixe'ri buruzko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Nikolas Ormaetxea Orixeri buruzko oroitzapenak. Joxeparen jaiotetxean, Legasa baserrian, bildu ohi zen aitarekin. Aulkia "zankalatraka" hartu ohi zuen beti.

Transkripzioa

- Ta zer rekuerto daukezu zuk berea?
- Ba hoixe, gero geroa bai geroa etortzen hasi zanean ta hoi bai, akordatuta lehen, lehenagotiken'e bai txikitan-o eskola ematen hasteako ta're hoi bai. Osea, baserrin asko biltzen zien, hue ta gehio're bai hola.
- Zuen baserrin?
- Baserrin bai. Haren rekuertoa daket hue behiñ'e sille bat hartu ta ez zala eseita hola jartzen, zankalatraka, zea sille ze respaldoa hola hartuta. Ordun, umeen gauzek gelditzen zaixkiu ezta, grabatuta ta nik hue dauket. Behin'e sillen hue ez zala eoten besteak bezala. Silla hartuko zun, buelta emango zion ta zea guk zankalatraka esaten geniyon zea horri. Historiala.

4.2. 'Atxiketan'

- **Hizlaria(k)**: Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: LIZ-007/026
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:37:24. **Bukatu**: 00:39:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Ume denborako kontuak. Ez zuten jostailurik, baina irudimenaz baliatzen ziren jolasteko. 'Atxiketan' jolastu ohi zuten.

Transkripzioa

- Jo, zean, atxiketan ibiltzeko.
- Zer da atxiketan?
- Zea, atxiketan jolasketa hoi atxiketan. Txutxerikin hemen hola ibiltzen, txutxek ez, baiño jugeteakin ta bakizu o bazkaria prepatzen-ta. Oain, dena konpleto dauzkea gauz guztik ezta, presto. Ordun ez, ordun billatuko giñun pusketan batzuk zea portzelanan pusketan batzuk eta nun-han ta haik jaso ta haikin.
- Baiño igual horregatik'e bai ez, lehen ez zenuen gauza handik eta kriston imajinazioa ta oain denetik dao ta [...].
- Bai, bai ta oain, oain ez duela. Nik nik ikusten den gauza hori da. Guk ordun ez gendun, ezerre ez zan, mixerie bakarra, baiño zuk zeren ingurun zakezun bizimoduari hari, hari zea, nola esango nuke...
- Zukua ateaten diozu.
- Bai, zukua. Haren antzeko gauzek itten. Jo, lokatzakin ta buztinë holako zea harrapatzen bagendun, ogie ta labeak eta bai, ogia itteko zeak eta sekulako figurak eta ateatzen giñun. Ta gurek'e etxe ingurun'e ze gauzek itten zien. Alkar bildu ta hortan denbora pasa ta gu bezela gaiñontzekok'e ikusiko ziñun. Zoze ni pentsatzen eoten naiz igual portzelanan pusketak eta lehengo antigualeko zea hoin zaharra, hola pusketan batzuk billatzen baziñun, zea bat jugete bat berri bat baino're gehio estimatzen zeniyon. Bai eta egur eta holako gauzeekin ardin figurek, arkumeanak, ixturek. Bai, baiño ordun baserrie o mendie askoz'e garbigua zan, beste itxure bat zaken, pagadik o pagoak eta bazeuden ta pagoak bakizu hola zaiñek eta bisten izaten dittue zeak eta haitak sekuluko belazeak, soroak.

4.3. Kaxiano Ibarguren 'Kaxa'

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/038
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:52:17. **Bukatu:** 00:56:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 25 urte zituela, Kaxiano Ibarguren 'Kaxa' soinu-jolearekin ezkondu zen. Bikote moduan ateratzen hasi zireneko garaiaz hitz egiten du. Umetatik ezagutzen zuten elkar; bien aitak zer harreman zuten azaltzen du. Kaxianoren haurtzaroaz eta familiaz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Ta nola ezautu zendun Kaxiano?
- Nola ezautu? Ezautu beti ezautu. Baiño ezautu txiki-txikitatiken ezautu, zeatiken hoik hoin aitta zan zentralista. Hemen, Araxes hor badao zentrala bat, ba hor zeatzen zan. Hor kolokatuta hue zan garai hartako, eskola bazuen, izango zun. Ba hoi ta gure aittek eta zea, zentrala, Oresako zentrala ibiltzen zuen ta zentralan medioz, zentralako zea asko zekin, Kaxianon aittek ta gureak eta holaz bilduko zien nik pentsatzen det. Ta hoik juten zien igande atxaldetan ta harea, gure etxea, Legasa baserria. "Hombre", biok edade berdiñekoak gea. Ezautu bai. Oain, gero ama hil ta hoik banatu zien, jun zien. Hoi Antzuola eaman zuen zeak osabak-eta, han'e han esaten zun harek ikastea eskolako zea han in zula, ez asko ikasita harek' e baiño. Bueno ikasi behar dan garaian utzi itten zaio, ordun hoi itten zan. Zuk pixka bat gustoa hartzen hasitzen zenen ikasten eta erreztutzen-o zeorrek antzematen gauzei ta zean ta ordun akabo!
- Ta ordun, harekin jolasten ziñen baserrin?
- Bai. Jesus! Jolastuko ez giñen ba. Txiki-txikitatik. Ezautu horreatik esaten dizut, ordun txiki-txikitatiken ezautu, baiño pentsatu holako gauzik ez. Ze pentsatuko dezu, ezta!
- Ta geo ordun ya hari zuk esan dezun bezela gurasoak eta hil zitzaizkionen bakoitza morroi jun zan punta batea?
- Bai, bai. Punta batea ta gero in zien hoik senideak bildu. Senidek bildu zien hemen, Lizartzan. Batek, klaro han ta hemen ta hola. Hoin, hoin izaera're oso. Hoik'e gurasoak ondo izan balittue, bueno, jakin zazu.
- Ta zenbat urtekin elkartu zian ta zuk ezautu zenun hemen berriz?
- Berriz, ba ezautu, tokatzen baziñen hitz eingo zan, baiño ez, hola ez. Gero ba nere anaia ezkondu zanen, soiñu jotzen hue han zan. Hizketan ta holako, harek garizumen itten zun jai. Ordun, garizumen ez zan soiñuik jotzen, zean, kuaresman, eta ordun ba Lizartzatiken aterako gea eo ez gea eo bagea-o holako, eske intermediarioa behar zendun, zeatzeko, hitz eitteko eo manejatzeko. Ba nik anaiek'e baneuzken ta bueno hola hasi giñan eta yasta.
- Zuzenen ez zan iten, beti beste persona baten bitartez iten zian holakok?
- Abixo o enkargue eo emateko baten bat behar zendun.
- Ta zuk eman zenion abixua eo beak eman zizun?
- Beak abixoa, aber jeistea nahi nun eo jetsiko nahi banun Tolosa osea Tolosa jun beharra zeon, Tolosa jun beharra. Bueno, hasera iteko nolabaitte behintzat hasi behar zan ta baiezkoa eman nion ta beno, geo handiken hara.

- Ordun ezkondu in ziñaten?
- Bai, bi urtea. Ba hogeita bost urtekin ezkondu.
- Ta hemen jarri ziñaten Lizartzan bizitzen?
- Bai, hemen.

4.4. Ezkondu eta Lizartzara bizitzera

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/039
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:56:24. **Bukatu:** 00:57:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 25 urte zituela, Kaxiano Ibarguren 'Kaxa' soinu-jolearekin ezkondu zen. Lizartzara joan ziren bizitzera; Kaxianoren arrebarenera. Orduko Lizartza nolakoa zen aipatzen du.

Transkripzioa

- Esan dizutena, katukumeak harea ta honea ta ibiltzen dien bezela ibilitakoak geala hemen, ez giñun hemen. Etxe hok'e ez zeuden ordun. Etxeik'e ez zeon, zeaik hola. Bere arrebakin jarri giñen aurrena. Arrebak denda bat zeuken hor goien eta harek neska behar zun, umea're bazeuken, hue aittonak eta amonak eta Tolosan, Tolosakoa zan gizona, koiñaua, eta han aittonak ta arrebak-eta zaintzen zien, baiño hemen behar zun, baten bat etxeko zeak itteko, beak denda jun behar zun ta ba lekue bazeuken etxean ta harek bueno, horri launtzeko hor jarri giñen.

4.5. Hamabostean behin, soinua

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/047
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:06:11. **Bukatu:** 01:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Hamabostean behin soinua egoten zen Lizartzan. Igandetan, bizikleta hartu eta batera eta bestera bueltaka ibiltzen ziren: Betelura, Tolosara... joaten ziren.

Transkripzioa

- Guk jai baten bai ta bestean ez jartzen gendun soiñue, bai, kaleko gazterintzako, neska-mutillentzako, bai. Ohiture, herri txikitan askotan zan ohiture hoi hola. Batzutan bat'e ez, bestetan geo guk askotan ba bizikletan beti ordun garai hartan ba atxaldea pasatzea-ta juten giñen ba Betelu aldea, etortzen giñen Tolosa ta bizikletan.
- Ta ze iten zenuen Tolosa etorritakon?
- Hortxe, bokadillon bat jan ta zinea jun eo, hola.

5. Baserria

5.1. Umetan, langak egiten

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/025
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:37:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Umetako denbora-pasa eta entretenimenduak. Ardiak, txerriak... zaintzen aritzen zen umetan. Abereak ihes ez egiteko langak egiten aritzen zen. Orduko umeek irudimen handiagoa zutela dio.

Transkripzioa

- "Esto" ardi zai ta aber ze denbora pasatzen giñun ardik zaindu behar zien, txerrik zaindu behar zien ta bialduko ziñun, bueno, ardik zaindu holoko belazeta eaman ta eutsi holako zea jun ez dittezen ta ez dakit zer-ta. Ba zea hortan. Holako gauzetan igual aittuko ziñen ba, zea txirikin ta txotxakin ta zeak itten, paretak itten ta langak itten ta nik nik hoi ikusten [...], izugarrizko zeak traste pillak itten giñula, baiño hue da ba ze ikusten ai giñen huexe itten.

5.2. Ogia maindirean bildu, hobeto kontserbatzeko

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/005
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** Nolako ogia egiten zuten azaltzen du. Ogiaren ezaugarriak: arroa, mamitsua, neurria, hurrengo egunean ere ona egoten zen... Ogia maindire zuri batean biltzeko ohitura zegoen hobeto kontserbatzeko.

Transkripzioa

- Eta ze ogi klase iten zenuen? Ze formatakok eo?
- Ogie? Ba oain'e zu saltzen denda ta panaderia ta hola jutun ta ez al dizkiozu ikusten "pan casero" deitzen zaienak, erdin hola raya batekin, hola zea moflete halakoxeak, danak. Ordun esan nun, bolloik eta hola barra zea hoik. Barra luxe hoik eta oain, oain itten dien hoitakoak itten dena. Dena itten zan "pan casero" ta haik aguantatu're askoz'e gehio itten zuen. Zeatik? Ba netzako iriñak eta denak gaur baiño naturalagok zielako, netzako.
- Naturaltasun horrek eusten zion mamitsua izateai-eo?
- Bai eta pentsa zazu hua. Gaurko ba oantxe konparazio bat jarriko dizut gauza horren gaiñen. Gaur ekar zazu barra bat eta sobratzen zaizuna biharko har zazu hartatik. Ta kasi-kasi ez dakazu jateik. Ya kanbiatu zaio ta gaurko umeei gazteei eman hue ta esango due: "Hau hiretzako, nei ekarriyak berrie". Ba harek aguantatzen zun guk bagiñuzen baserritarrak asko, ba asten bi aldiz ematen zuenak bakarrik ogie aste guztiako. Pentsa zazu, harek hiru bat eun aguantatzen zien aixa, ondo. Itten zuen, itten zuen konparazio batea haizea hartzen, haizetan euki beharren ogi hue ba trapu txuri baten, maindire bat bezela txuri baten bildu ta haizeik ez hartzeko bilduta eukitzen zuen.
- Ohiture izaten zan?
- Ohiture izaten zan bai, hobeto konserbatzeko bai. Gehio aguantatzeko, klaro. Eunen, euneko estiloa. Eoten zan hirugarrenen'e, bai.
- Ta ze tamaiñotakok izaten zien?
- Ze tamaiñakoak? Bueno, ordun guk itten gendun, ez gendun hola bolloik eta holakoik itten. Konparazio batea, ba holaxe hemen tamaiña hontatik hasi kilokoa ta geo bestea haundioa bi kilokoa, hola postura horretan.

5.3. Ataungo basagizonak

- **Hizlaria(k)**: Goikoetxeaundia, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: LIZ-013/001
- **Iraupena**: 0:05:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:50
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena**: Ataunen basoan lan egiten duen jende asko dagoela-eta, horien bizimoduari buruz dihardu. Ataungo ikazkinak martxoaren hasieran inguruko mendietara joaten dira eta maiatzaren bukaerara arte zuhaitzak ebakitzen eta ikatza erretzen aritzen dira.

Transkripzioa

Ataungo basagizonak

Probintzin eztek mutillek beste erri bat Ataun ainbe aitton-ume bizi danik. Soro punta bat, esparru txiki bat, gaztañei pixka bat, bei koxkor bat, txerri kume txiki bi, auntz bat ekarrean lotuta, sei bat ollo atarin izan ezkeo ateatzeitik bizi modue. Senarra basa-gizona bada amofatzen zeok udaberrie etortzeko, Martxotik asten dek basoa beira. Eosten ditik aizkora bi San Gregorioko ermentarin, eitten dizkik kirten bi aizkoantzat eta baezpaa beste kirten bat erreserban eukitzeko. Bazebillek uzkur-muzkur lantegia nun izango ote dun. Jai goizean meza ondoren juntatzeituk kuadrillak eliz atarin; zaarra bada belar piska bat pipan erreaz, eta gaztea

bada petaka atea poltsillotik, paper bat ezpañan zintzilika, tabakoa esku-zabalean apurtzen, apurtuaz egiten dik zigarroa eta an zeudek txistua bota, kea atea, egualdi beira.

Basoa gora, basoa bera, noekin tratu eiñ sumatu eziñik. Mutiko koskorrak amabi bat duro eta mantenua, gazte sasoikoek ogeita lau duro, mantenu ta aizkora libre eta opor gabe, berrogeien itzulitakoek ontzako bat opor gabe, ajustatzeittuk uda guztieko. Andreak galde egiten zio:

- Ezer egin dezu, gizon?

Ta gizonak erantzuten zio:

- Bai, Joxpantoni, lana beñipeiñ baiñau.

- Ongi xamar?

- Ontzako bat opor gabe, eta jakia neretik.

- Amorñatue! Ez dek asko. Eta auzoko Begaraño, zenbatean da?

- Nik bezela egin din tratua.

- Eta mutil-nausi, zein da?

- Saletxeko Praxko Antonio.

- Eta noiz joateko?

- Martxoan ogeia luzenen dala. Praxak konpontzen laister asi bearkozu, pruxa berri bat ere Billaprankatik ekarri bearkozu eta gaztai pare bat ere jakitako merke xamar bada...

- Bai, nee gizona, ekarrikoizut, basoa gosea da eta, oik beñiepeiñ ekarrikoizut. Eta astelen batean, eunak baño lenago.

Batzuk pardelean, besteak kopre txikin, aizkora, gaztaia, praxa, pruxa bizkarrean artu ta bazijoazik Urbasa gañea; txakur bat atzetik katean txaolai kontu artzeko; torteroa tupie zintzilika dula; gazte bat alprajatak zimizta bezelako zintaz josi lepoan, pañuelo gorri bat artu eta txilibitua joaz aurretik, Bienakoaren atzetik, upa mutillak! esanaz. Andra bat lotu, irtetzen da bide erdira:

- Amorñatue, basa-gizonak!. Nora zoazti etxekok?

- Basoa, pazkoa Maitzekok arte.

- Jainkoak beinkatu zaiztela! Ongi ibilli.

Eta urrengo goizien, siñatu, lanteiai beiratu, aizkoa igurtzi, eta, mutillak! nun ingo diau txaola?

- Or zelaiune ortan, aize babesean, laiotzetik pixkat aparte; iturri gorrie ee emendik erosoago izango diau. Eta emen pasatzeitek uda aldie, bi otordutan ba ba beltza gantzakin janaz, torteroak taloak errez eta illuntzean kamaña joaten dianean gaztai miko-miko bat jan eta lota.

Emezortzi ordu lan, sei ordu lotan, eta txondarrak eosten ateienean bi ordu goi eneko karnañan [txillarran gañean lo eiñaz eta pozik oporrik ez danean. Mutillak! Bizitzen ikasteko ataundarrakin ikazkintzaa joan urte pare batean, nai baazue mutill nausi eta nai baazue baso-gizon].

6. Iritziak

6.1. "Gazte denbora, latza"

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-007/030
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:44:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**

Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Anai-arreba zaharreneni etxean lan asko egitea tokatu zitzaien. Joxepa 23 urtera arte aritu zen baserriko lanetan. Ama Joxepak 14 urte zituela hil zen; anaia gazteena hilabetekoa zela gelditu ziren etxean. Gazte garaian, ama faltan bota zuela dio. "Gazte denbora latza" pasa zutela dio.

Transkripzioa

- Ta beatzi senide eukita, zuek zaharrenak ziñatenak etxen lan asko ittea tokatu zitzaizuen?

- "Hombre". Hogeita hiru urte arte. Pentsatu, gero anaia zaharrena ezkondu zan ta dena ordun. Ta gaiñea, bueno, falta haundie billatzen dezu gaztetasun gazte denboan ba ama. Ama nik hamalau urte nittula hil zan ta hoi, hori ez da recuperatzen sekulan gero. Nik etxean kanpo lanean baiño gehiao, kanpo lanean'e bai, baiño segan ta hoitan ez asko ez. Bai, [...] itteko ta astokada bat eo aberekada bat zea [...] ta moztutzeko-ta hoi bai, segan ikasi bai, baiño nere ahizpa gehigo, eske gero ama hil ta anaia zaharrena soldadu jun behar izan zun ta nahiko.

- Ordun geatu ziñaten pixkat zuek beste seniden kargu.

- Bai, bai ta gaiñea guri ama hil ta anaia gazten-gaztena ba zea hillabetekoa geldittu zan, bai. Partotiken infekzioa sortu zitzaion, zeatu zan ta hala, hala garbittuta. Aber ze gazte denbora pasa deun, latza, benetan.

7. Lanbideak

7.1. Dontzeila, Donostian

- **Hizlaria(k):** Atxega Olasagasti, Joxepa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi

- **Erref:** LIZ-007/034

- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:49:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Neskameak

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

- **Laburpena:** Anaia zaharrena ezkondu zenean, neskame joan zen Donostiara. Dontzeila egon zen aberats familia baten etxean. Etxea garbitzeaz, jatorduak zerbitzatzeaz... arduratzen zen. Lanean, uniformeak erabiltzen zuen. Lehen, aberats eta bestelako jendearen artean alde handiagoa zegoen.

Transkripzioa

- Ta ordun esan dezu, neskame're jun ziñela garaian batean?

- Bai, bai. Hogeita hiru urte arte, anaia ezkondu zanean ba ordun, ordun libre bezela ta etxeko karrue dena. Besteie eta ba zeeze ikasi nahi bazendun, neskamea jun beharra zeon. Ta ni Donostira jun nitzen ta hola, aberas jenden ondoan.

- Ta zeeze ikasi esaten dezun hoi, zer zan, erabat mundua ezautzeko

bezela?

- Bai zea! Ez, etxeko lana-o karo, ordun ikasi behar zendun, ba ordun bazien ikastea juten zienak. Ez zan ordun gaiñea iñun ze o kolejion batea-o jun behar jun bai zea, nola jungo ziñen? Posibilidadeik'e ez zeon ordun. Ordun, ordun, diferentzia haundie zan, zea zeatiken bajutikan altua. Gero altu hoik'e jetsi beharra izan due, jetsi batzuk, baiño ordun etiketak kristona zan. Zuk bakizu nik dontzeilla eon nitzen ta bueno, Jesus! Bua, dontzeilla, dontzeilla! Baiño kozinera, dontzeilla ta aiña, ume-zaintzaillea. Nik ba etxea garbitu ta holako gauzek eta gero mahaie zerbittu ta han guante txurik eta sekulako kofiak eta jantzi ta mantalak eta, zeak almidonatuta ta tenazillekin sekulako kixkorak ateata. Holako gauzek itten ikasi bai.

- Horri aiña deitzen zaio?

- Aina o dontzeilla. Dontzeilla deitzen zien horri. Kozinera, dontzeilla ta aiña. Aiña zan umea zaintzen zittunak, ume txikik baldin bazien.

7.2. Atallun okindegia hartu

- **Hizlaria(k)**: Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: LIZ-012/012
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:20:30. **Bukatu**: 00:21:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Lizartzan eta Orexan saltzen zuten ogia. Gero, Atallun okindegi bat hartu zuen Pelloren aita bost urterako. Pellok urte bat egin zuen Atallun lanean. Hango ibilerak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Beti gutxio, klaro. Guk Oreja're ematen gendun ta Oreja, geo, berriz, herrikoa kanbiatutari urtebeten Atallun eon nitzen. Atallun, panaderi bat hartu zun gue aittek, zean bost urteako ni soldaduskatik etorri nitzenen, denak utzi, garajek eta denak eta garaje're aittu baintzen Tolosan taillerren mekaniko. In bihar izandu nun ba Atallun urtebeten eon ta handi zeaiño juten nitzen ni, Beteluko balnearioaiño, ta handi asten bitan zeara eaman, ze herri da hue Betelutik goraxogo, "esto".

- Uztegi? Gaintza?

- Ez hoi berago daude, Betelu baiño beheara.

- Intza?

- Beteluko balnearioa pasata gorao. Intza Betelutik sartzen da. Gorago, jode. Uztegi.

- Uztegi.

- Uztegi. Errez da, igual da, utzi.

- Eta.

- Hoi han eon giñanen ta geo bost urte pasa zianen utzi in gendun berriz ta hola.

7.3. Larreanea Fonda

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/038
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:58:34. **Bukatu:** 00:59:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Pelloren familiak Fonda zuen Lizartzan. Larreanea Fonda zuen izena, eta jatetxea, elikagai denda eta okindegia zituzten.

Transkripzioa

- Jatetxea, "tienda comestibles" ta panaderie gendun.
- Ta zenek iriki zun?
- Hoi seguramente gue aittonak-eta. Aittona ta amona. Geo gu, gurasoak. Ta gu ttikik, gu ttikik aurrena baiño geo, pixkana-pixkana.
- Ta jatetxe horrek nola, nola funtzionatzen zun? Esan nahi det, ze otordu ematen zian, non?
- Joe, otorduk "de todo, de todo". Txerrie hiltzen gendun etxen, txuletak eta gixaue, haragi gixatue ta denak. Bodak-eta, "de todo".
- Egunero? Astez, astetikan?
- Hombre, kamioneroak'e bai. Zea Bartzelona aldea juten zienak eta zeati, arraiekin ta juten zienak Ondarrukoak eta're asko gelditzen zien. Etxen bai.

8. Ekonomia eta industria

8.1. 100 kiloko bi-hiru zaku gari-irin egunean

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/006
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Egunean, 100 kiloko bi-hiru zaku gari-irin erabiltzen zituzten ogia egiteko. Ogi ugari egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta egunen zenbat ogi ingo ote zenuten?
- Egunen?
- Zenbat kilo irin erabiltzen zenuen?
- Eunen zenbat, bai, bi-hiru zaku. Bi zaku itten zien ta hiru're bai geo, pixkana-pixkana hoi're zea juten da askotan aguantatzen, herria hazitzen ai dala o kanpoa igual saltzeala. Bai, bi zaku, hiru hola ibiltzen zan.
- Ta zaku bakoitza zenbat izango zan?
- Ehun kilo.
- Ehun kilo?

- Ehun kilo, bai. Ordun, oain txikigok izaten dia zakuk'e holaxe. Porlanan zakuk bezelaxe estilo hortakoak ta lehengo zakuk zien zeakoak, hola material.

- "O sea que" egunen hiru kilo gari?

- Hiru kilo gari?

- Hirurehun, hirurehun kilo.

- Oain ez dakit kiloko ta zea iriñetik garia nola, ze diferentzi ibilikon, baiño bai, "mas o menos".

- Ta zenbat ogi gutxi gorabehera?

- Bueno, hoi, hoi.

- Pilla bat.

- Bai. Mordoxka haundie, ez dao esateik, ez dakit oain zenbaten. Kalkulu hoik'e ahaztuta.

- Hamar? Ehun?

- Hamar? Ehun? Jesus! Gehio're.

- Berrehun? Bostehun?

- Ze esango dizut ba nik. Berrehun bat? Hirurehun? Segun ttikigoak ta haundixogoak eta bakizu, bariatu're kantitateak'e in itten du-ta.

9. Aisia

9.1. Fondako giroa

- **Hizlaria(k)**: Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref**: LIZ-012/040
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:01:32. **Bukatu**: 01:02:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Larreanea Fondako giroa. Herriko jendea, jubilatua, langileak... ibili ohi ziren bertan. Asteburuetan, beste giro bat egoten zen jatetxean. Normalean, gizonezkoak ibili ohi ziren tabernan.

Transkripzioa

- Ta ze giro zeon zuen jatetxe hortan? Herriko ambientea bazeon eo kontatuko diazu pixkat?

- Herriko ambientea izaten zan, euneroko jendea. Jubilatu ta laneti datorren jendea-ta. Geo asteburun, beti diferentea izaten zan. Lanbaten ta jaien beti pixkat, batzuk mezeta etortzen dienak hamaiketako pixkat in ta tal. Geo, afari batzuk-o tal ta hola.

- Gizonezko normalen eo emakumezkoak'e bai sartzen zian?

- Gizonezkoak normalen. Garai haitan, ez zan hola emakumeik herri txiki hoitan behiñipin, hemen, Tolosan, ta hola bezela.

- Tolosan gehio ikusten zian emakumeak?

- Bai, Tolosan zuk ezkondu baiño lehenao're zea batea sartzen baziñen ba Tolosan ta hola jeneralen, hola, herri zea hoitan.

9.2. Lizartzako inauteriak

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/045
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:04:26. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena:** Garai bateko Lizartzako inauteriak nolako izaten ziren kontatzen du. Inauterietako egun batean, baserriz baserri ibiltzen ziren eskean. Soinujolea eramaten zuten; hari ordaindu egiten zioten. Arrautzak, txorizoa, urdaia... biltzen zituzten, eta haiekin otorduak egiten zituzten Fondan.

Transkripzioa

- Ta nola ospatzen zenituen ba karnabalak Lizartzan?
- Karnabalean ospatzen gendun guk "de maravilla". Eun baten, itten gendun, baserrita juten giñen, herriko baserri guztik korritzen giñun soiñukin junda. Ta ematen ziguen, biltzen gendun arrautze, txoixoa, urdaie're ematen zuen toki batzutan ta hola jeneralen. Ta mordoxka. Hamabi dozena arrauz ta hiru-lau txoixo ta, ta geo haikin otorduk in-ta. Haitati sobratzen zana saldu ta geo beste zer bait jan-ta.
- Ta nun jaten zenuen?
- Gue etxen jeneralen, gue etxen.
- Ze juten ziñaten kintoak? Eo nola izaten zan, nahi zuna juten zan?
- Ez, guk kuadrille juntatzen giñen hola ibiltzeko. Kuadrille, plazako zean soiñue, klaro soiñue ordun gaiñea baakizu, zer bait eaman in behar izaten dezu, paatu behar izaten zendun akordeonista. Ta paatu itten zan ta ordun ba juntatzen giñen gu kuadrille bat eta gaiñea inkluso lista're inda izaten gendun lista, [...] ta holan zala ta paatu kuota ttiki bat bezela ta denon arten.
- [...] juten zan?
- Bai. Baiño jeneralen kuadrilla osatuta eoten die.

10. Euskara

10.1. Lagunartean, hika

- **Hizlaria(k):** Garaikoetxea Gibelalde, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Erref:** LIZ-012/055
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:13:27. **Bukatu:** 01:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Lagunartean hika hitz egiten izan du. Guraso eta senideekin, berriz, zuka.

Transkripzioa

- Eta launan arten hika hitz eiteko ohitura bazenuen Lizartzan?
- Bai, bai.
- Eo zuka?
- Edade pixkat behar zendun hola zuka zeatzeko. Bai, bestela.
- Ta gurasokin ta senidekin ta hola?
- Ordun zuka haikin. Edade pixkat [...] errespetoa ya zea zuen zeakoa posturekoa baldin bazan: "hi! Harea jungo al gea?", "hi! Etorriko al gea?" eo, "bai, geo jungo gaittik" eta gen kasakin gen zean, gen maillen baiño bestela ya baldin bazan konparazio batea ze esango dizut ba, hamar-o hogei urte-o gehiokoa ba zuka, hoi beti.
- Ta hemen Iruran?
- Bai, "por estilo".

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gerra ondorengo gabeziak (LIZ-001/004)

Gerra ostean ez zuten goserik pasa, baina gabezia bai. Gauez Nafarroara joaten ziren isilka irina ekartzera. Babarrunak izaten zituzten. Baserriko produktuak herriari entregatu behar izaten zitzaizkion. Gero kartilak banatu zituzten. Guardia Zibilak inguruan ibiltzen ziren. Beldurra pasatzen zuten.

2. Baserrian lana zegoen urte osoan zehar (LIZ-001/009)

Neguan ere baserrian lana izaten zen, baina udara eta udazkenean gehiago. Gaztaina asko biltzen zuten, artoa ere bai. Udaran garia jotzen zuten.

3. Arbia egiten (LIZ-001/010)

Neguan, arbia ekartzen zuten. Arbia nola egiten zen kontatzen du.

4. Emaztea baserrian eta senarra lantegian; aitona-amonen laguntza (LIZ-001/011)

Egunero esnea saltzera joaten zen. Maizterrak ziren eta etxea erosi ahal izateko senarra lanera joaten zen. Joxepa baserriaz arduratzen zen. Amonak etxean laguntzen zion gaixotu arte.

5. Garai bateko amonen jantziak (LIZ-001/013)

Amonak gona luzeekin eta mototsarekin janzten ziren. Beltzez joaten ziren, ez zituen inoiz kolore argiz jantzita ikusi.

6. Heriotzaren inguruko elizkizunak (LIZ-001/016)

Hildakoaren entierroa eta gero apaizari bazkaria eskaintzen zitzaion tabernan. Entierroak gastu handia suposatzen zuten. Ondoren beste ospakizun batzuk egiten ziren elizan, bederatziurrena eta errespontsuak. Horretarako dirua biltzen zen. Kandelak ere pizten zituzten. Apaizak dirua irabazten zuen horrekin.

7. Lutoa (LIZ-001/017)

Heriotza baten ondoren lutoa jarri behar izaten zen. Horretarako arropak tindatu egiten zituzten. Orduan arropa askoz gutxiago zeukaten. Joxepak urteetan lutoa eraman zuen.

8. Gaztetan oinez joaten ziren leku guztietara (LIZ-001/019)

Gaztetan, inguruko herrietara bakarrik mugitzen ziren. Gehienez Tolosara enkarguak egitera. Leku guztietara oinez joaten ziren. Donostiara behin joan zen medikutara.

9. Nobiotan paseo gutxi eta lan asko (LIZ-001/023)

Andresoro baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da. Elkarrekin etxean lanean zebiltzala ezagutu ziren, Joxepa etxeko neskamea zela. Nobioak zirela lana besterik ez zuten egiten, paseo gutxi. Ardiak zituzten etxean.

10. Herria bitan banatu zen baltseko eztabaidengatik (LIZ-001/024)

Dantzarik ezin zen egin eta apaizaren alde jarri ziren batzuk. Herria bitan zatitu zen eta istiluak izan ziren. Orain berdin jarraitzen omen dute. Oraingo zatiketa politikarengatik da.

11. Baltsean ibiliz gero konfesatu behar izaten zen (LIZ-001/025)

Lehen dena bekatua zen, orain berriz ezer ez. Baltsean ibilitakoak konfesatzera joan behar izaten zuten. Joxeparen familian bi bandotakoak zeuden. Apaiza herritik atera zutenean gauzak lasaitu ziren. Apaizak konfesioaren bitartez kontu guztiak jakiten zituen.

12. Lizartzako festak (LIZ-001/026)

Santa Catalina eguna festa izaten zen garai batean, herriko patroia zelako. Gero, festa eguna aldatu egin zuten. Meza eta soinua izaten ziren. Herriko festak irailaren 8an ospatzen ziren. Herriko jendea orain baino elkartuago zegoen. Bertsolariak izaten ziren eta pilota partiduak ere bai. Kaxiano akordeoiarekin etortzen zen. Orain, txaranga dago herrian.

13. Kaxiano musikaria (LIZ-001/027)

Kaxiano itsutu ondoren hasi zen musika jotzen. Kaxianoren historia kontatzen du. Donostiako apaiz batek lagundu omen zion itsuen kartak ulertzen.

14. Inguruko herrien gaitzizenak (LIZ-001/029)

Lizartza herri ijitoa dela diote. Garai batean ijito asko ibiltzen omen ziren. Altzokoak "tipulak", Gaztelu "eroa", Orexa "txoro haizea".

15. Gerrako kontuak Lizartzan (LIZ-001/033)

Nafarrak sartu zirenean, Joxepak sei urte zituen, baina gogoan dauka zubia nola zulatu zuten. Santiago egunean, urteetan kanpaiak jo izan dituzte herrian, nafarrak sartu zirela gogoratzeko. Amonak gerrako egunez kontatzen zuena gogoan du. Lizartzan bi bandotakoak egon arren, herritarren artean tapatu egin ziren.

16. Eskolako oroitzapenak (LIZ-002/003)

Eskolako kontuak. Neskentzako maistra bat eta mutilentzat beste bat ziren. 40 ume inguru izango zirela dio. Maistra erdalduna zen, eta umeek, berriz, ez zekiten euskara besterik. Joxeparen ama gaixotu egin zen, eta 12 urterako eskola utzi egin behar izan zuen. Eskolara joan eta aurreneko gauza "¡Viva España!" esan behar izaten zuten eskua altxatuta banderaren aurrean.

17. Laborea eta matematikak (LIZ-002/004)

Ume garaian, neskak laborea egitera joaten ziren arratsaldetan: bordatzen, josten, puntuak... ikastera. Eskolan, matematiketan zer zailtasun zituen kontatzen du. Opor garaian, beste maistra batengana joanda ikasi omen zituen matematikak behar bezala.

18. Dotrinara hutsik egin gabe (LIZ-002/005)

Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta erdietan ez omen zen eskolara joaten: behiak larrera eramaten, itulan... aritzen zen. Dotrinara, ordea, ezin zen hutsik egin. Elizara joaten ziren dotrina ikastera. Lezioa ikasi gabe joanez gero, zigorra izaten omen zuten.

19. Eskola ez, dotrina bai (LIZ-002/007)

Egunero izaten zuten dotrina. Eskolatik atera, eta ordubete inguruko saioa izaten zuten eguerditan. Baserrian lanean aritu eta eskolara joan ez baziren ere, dotrina ordurako beti joan ohi ziren. Gurasoek ez zuten eskola beharrezko ikusten; aldiz, dotrina bai.

20. Gau-eskola eta laborea (LIZ-002/008)

Organistak ematen zituen gau-eskolak. Gau-eskoletara mutilak joan ohi ziren. Mutilek urte gehiago ematen zituzten eskolan, soldadu joan behar zutelako. Neskak laborea egitera joaten ziren arratsaldetan.

21. Senarra eta haren aita (LIZ-002/015)

Senarraren aita Kubako gerran ibili zen, eta han ikasi zuen gaztelania. Herritik joan zenean ez zekien gaztelaniaz, baina han asistente ibili zen, eta ondo ikasi zuen. Joxeparen senarrak 14 urtera arteko egin zituen ikasketak, eta, gero, soldadu joan zen. Gaztelaniaz ondo moldatzen zela dio. Senarraren amak, berriz, ez zuen eskolarik.

22. Meza, latinez (LIZ-002/020)

Lehen, meza latinez izaten zen, eta ez zuten ulertzen. Konfesioak euskaraz izaten ziren. Erlijio kontuak dotrinatik ondo ikasita izan zirela dio. Eskolan, dotrina gaztelaniaz ikasten zuten; eta apaizarekin, berriz, euskaraz.

23. Hamar urterekin Martutenera morroi (LIZ-003/004)

Hamar urterekin umezurtz geratu zen. Ahal zuten moduan atera zuten bizimodua senideek. 10 urterekin joan zen Martutenera morroi. Aldundiak babestutako etxea zen, umezurtzak hartzen zituzten bertan. Hango bizimodua nolakoa zen kontatzen du.

24. Martuteneko bizimodua (LIZ-003/005)

Mutil kozkorrak izanik, pozik ibiltzen ziren lanean. Gainontzeko morroien jatorriaz ari da. Bere anaia ere bertan zen. Hilabetea bost duro eta janaria ematen zizkieten ordainetan. Hala ere, janaria hala-moduzkoa zen, errazionamendu garaian oso eskasa.

25. Ikasketak egiteko astirik ez (LIZ-003/008)

Gerra garaian eskolako bizimodua egiten jarraitu zuen. Solfeoa ere ikasten hasi zen baina, morroi joateko utzi egin behar izan zituen guztiak. Erdaraz ikasi behar izaten zuten, zailtasun handiarekin.

26. Gerraosteko gosea (LIZ-003/009)

Eskola ostean, baserrira lanera itzuli aurretik, plazan geratzen ziren jolasean. Baserrian baino, kalean gose handiagoa zegoela kontatzen du. Soinua jotzen herriz herri edo ezkontzetan hasi zenean, izan zuen tripa betetzeko aukera.

27. Hamazazpi urterekin soinua jotzen (LIZ-003/011)

Hernanin morroi zegoela aurreztutako diruarekin erosi zuen soinu txikia. Hamazazpi urterekin hasi zen soinua jotzen. Aita zenaren pianoaren trukean soinu handia eskuratu zuen geroago. Plazarik plaza asko ibili zen.

28. Soinua entzun orduko jendea dantzan (LIZ-003/012)

Soinua hasi orduko dantzan hasten zen jendea. Mahai gainera igo eta lau ordu pasa zitzakeen hauspoari eraginez. Tabernako giroa nolakoa izaten zen kontatzen du. "Suelltuan" dantza egiteko piezak jo behar izaten zituen. Baltsean dantza egiteko piezek eragindako alkatearen eta apaizaren arteko liskarra kontatzen du. Baltsaren alde zeudenak, "gorriak" ziren eta kontra zeudenak berriz "zuriak".

29. Baltsean egiteko piezak jotzea bekatu (LIZ-003/013)

Kaxiano, soinujole ezaguna zuen anai. Kaxianok baltsean egiteko piezak jotzen zituen. Baina, dena bekatu zenez, beldurak airean ibiltzen ziren.

30. Batetik bestera ibiltzea ez zen erraza izaten (LIZ-003/015)

Abisuak jaso eta emateko, lokutorioko emakumeaz baliatzen ziren. Bizikleta, autobusa edo trena erabiltzen zuten garraio bezala. Adibidez, Zarautzera joateko hartu behar ziren autobus eta tren desberdinak izendatzen ditu. Motorra erosi zuenean asko erraztu zen batetik bestera joatea.

31. Izerdi-patxetan zegoela, soinuaren teklak geratu! (LIZ-003/016)

Lizartzako plazan gertatutako anekdota bat kontatzen du. Bero handia zen egun batean, izerdiak soinuaren teklak gera arazi omen zizkion.

32. Hamar duro saio bakoitzeko (LIZ-003/018)

Herriz herri soinua jotzen ibiltzen zenean, bertako ostatuan egiten zuen lo. Otorduak eta ostatua ordaindu beharrik ez zuen izaten. Hasi berritan hamar duro kobratzen zituen. Fabrikan asteen hogeit hamar duro irabazten zirela kontutan hartuta, soldata ona iruditzen zitzaion.

33. Orduko soinujoleak (LIZ-003/020)

Orduko soinujole ezagunak izendatzen ditu: Isidro Larrañaga, Beloki, Juanito Lasa eta Meltxor Caminos. Harreman oso ona zuten beraien artean.

34. Belarriz ikasten zituzten piezak (LIZ-003/022)

Belarriz ikasten zuten orduan. Erraztasun handia zuen horretarako Manolok. Entsegurik ere ez zen; zuzenean plazara.

35. Soinujole onak parranderoa behar du izan (LIZ-003/025)

Soinujole on bat izateko, ikasketez gain parranda zalea izatea ezinbestekoa iruditzen zaio. Beso luzeak ez zaizkio hain beharrezkoak iruditzen. Soinujole nano bat ere ezagutu zuen.

36. Kaxiano, anaia, nola geratu zen itsu (LIZ-003/026)

Tunelean lanean zebilela, dinamita leherketa batek utzi zuen itsu anaia. Nola gertatu zen kontatzen du. Ordurako soinua jotzen hasita zegoen baina, istripu ostean hartu zuen ogibide bezala. Bertsotan ere oso ondo moldatzen omen zen Kaxiano.

37. Kaxianoren "Axariak" taldea (LIZ-003/028)

Kaxianoren taldearen izena "Axariak" zen. Taldeko partaideak ekartzen ditu gogora.

38. Txaramako paper-fabrika (LIZ-003/030)

Txaramako paper-fabrian egin izan du lan Manolok. Peoi moduan hasi zen. Lanbide desberdinak izan ditu. Papera nola egiten zen kontatzen du. Amaierako urteak zailak izan ziren paper-fabrian.

39. Euskalki desberdinei buruz (LIZ-003/037)

Herri desberdinetako euskalkiez ari da. Desberdinak izan arren, guztiak dira euskara. Euskalkirik garbiena tolosa ingurukoa iruditzen zaio.

40. "Gure kuadrillan" abestia (LIZ-003/040)

"Gure kuadrillan" abestia kantatzen du.

41. Eskolan hotza pasatakoak (LIZ-004/004)

Julian sei urterekin hasi zen eskolan; Joxe Mari, berriz, bostekin... anaiak engainatuta. Negu garaian, hotza pasatzen zuten eskolan. Maisuak brasa jartzen omen zuen balde batean... bere burua berotzeko. Ikaskide batzuk maisuari brasatara pipermina bota zioteneko kontatzen dute. Ez zuten aterkirik; buruan zapatua jarrita ibili ohi ziren.

42. Neskak ea mutilak ezin elkarrekin ibili (LIZ-004/005)

Lizartzako eskola gaur egun udaletxea dagoen tokian zegoen. Mutilek beheko solairuan ikasten zuten, eta neskek, berriz, goian. Eskaileretan, jolas-orduan... ere aparte ibili behar izaten zuten. Neskekin soka-saltoan egiteagatik zigorrarekin belarrietan jo omen zuen apaizak Joxe Mari.

43. Eskolara berandu joanez gero... (LIZ-004/007)

Eskolara joan aurretik, esnezaleari esnea erosi behar izaten zioten. Hura berandutzen bazen, eskolara berandu iristen ziren eta maisuak zigorrarekin jotzen zituen. Lehen, gurasoek ez zuten zalantzan jartzen maisuaren jokabidea.

44. Euskaraz egitea galarazita (LIZ-004/008)

Eskolako kontuak. Maisua Logroñokoa zen, eta ez zekien euskaraz; eskolan galarazita zuten euskaraz hitz egitea.

45. Soldadutzako gorabeherak (LIZ-004/009)

Gaztelaniaz hitz egiten justukoa ikasi zuten. Julianek Burgosen egin zuen soldadutza; Joxe Marik Donostian. Hizkuntza zela eta soldadutzan zer gorabehera izan zituzten kontatzen dute. Julianen soldadu lagun gehienak euskaldunak ziren, eta euskaraz hitz egiten zuenari eraztuna ematen zioten zigor moduan. Hemengo soldaduek diru gehiagoa izaten zuten ordu libretan gastatzeko. Etxekoek bidaltzen zien dirua.

46. Soldadutzara, etxeko jatekoarekin (LIZ-004/010)

Joxe Marik Donostian egin zuen soldadutza. Arreba bat Martutenen bizi zen, eta harengana joan ohi zien joateko bila. Asteaz asteko jatekoa eramaten zuen, eta horrela diru gutxiago gastatu zuen soldadutzan.

47. Instrukzioak bukatu eta basolanera (LIZ-004/012)

Soldadutzan zegoela, instrukzioak bukatu eta gero baimena eman zioten basolanera joateko. Hilabete batean, 80 duro irabazi zituen. Beste hainbat lan egin zuen dirua ateratzeko.

48. Insalustik atera soinua jotzeko (LIZ-004/013)

Lehen, dirua etxean, patrikan... gordetzen zen. Joxe Marik 16 urte zituela Insalusen lanean hasi eta kartila ireki zuen aurrezki kutxan nagusiak esanda. Lana utzi egin zuen ez ziotelako baimenik ematen soinua jotzera joateko. 19 urtera arte ibili zen soinua jotzen. Gero, adinagatik lanik bilatu ezin eta aitarekin basolanean hasi zen.

49. Amari dirua entregatu behar (LIZ-004/015)

Lanean irabazitako dirua amari entregatu behar izaten zioten. Zer lan eta zer jornal irabazten zituzten aipatzen dute. Astero, ostiraletan jasotzen zuten jorнала. Julianek hamar egunetik hamar egunera ere jaso izan zuen jorнала.

50. Bi pezeta karamelutarako (LIZ-004/016)

Gaztetako ibilerak. Bi anaiak Orexara edo Gaztelura joaten ziren festetan, eta bientzat bi pezetakoaren joaten omen ziren. Ez zuten dirurik gastatzen etxera joateko garaia iritsi arte; orduan, pastelak edo karameluak erosten zituzten. Bakoitzak bana jan eta besteak etxekoentzat gordetzen omen zituzten.

51. Orexako festak (LIZ-004/018)

Orexako festei buruz hitz egiten dute. Soinujole bat izaten zen festetan: Berastegiko Pakito aipatzen dute. Joxe Mari ere soinua jotakoa da Orexako festetan.

52. Festetan, soinujoleak eta ttunttuna (LIZ-004/019)

Joxe Mari soinua jotzen ibilia da. Lizartzako festetan, herriko gazteek bi soinujole jartzen zituzten: Joxe Mari eta Manolo. Herriko gazteek ordaintzen zuten soinujolea; zerrenda bat egoten zen gazteen izenekin eta bakoitzak 11 pezeta ordaindu behar izaten zituen. Ttunttuna ere izaten zen; hori herriak ordaintzen zuen.

53. Soinua esnezalearekin bidali... (LIZ-004/020)

Orexara, Gaztelura... soinua jotzera joan behar zuenean oinez joaten zen. Soinua esnezalearekin bidaltzen zuen. Soinua bizkarrean hartuta ere joana da.

54. Kaxiano, 'Kaxa' (LIZ-004/023)

Kaxianori buruz hitz egiten dute. Nolako gizona zen, zer harreman zuten...

55. Neskatako gorabeherak (LIZ-004/026)

Neskatako kontuak. Gaztetan, ez omen zen ausartzen Neskengana joaten. Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du: morroi zegoen baserriko etxeko andrearen ahizpa zen. 17 urterekin hasi ziren nobio moduan. Soinujole moduan ibiltzen zenean neskatan egiteko aukera izaten omen zuen.

56. Ilunabarra, neskarekin dantzatzeko garaia (LIZ-004/028)

Neskatako kontuan. Ilunabarrean, erromeriako azken pieza neskaren batekin dantzatzeko momentua aproposa izaten omen zen. Neska-laguntzea: 14 urterekin 16 urteko neskari etxera lagundu zionekoa. Emakumeen janzkerari buruzko aipamena.

57. Emakumeen janzkera (LIZ-004/029)

Lehen, emakumeek belaunetik beherako gonarekin ibili behar izaten zuten. Orduko pentsakeraren eragina.

58. Arditarako afizioa (LIZ-004/030)

Astean zehar lantegian egiten zuen lan, baina igandetan ardizain ibiltzen zen. Beti izan du arditarako afizioa. Ezkondu zen garaian, 103 ardi zituen. Etxean lan asko zuten, ordea, eta denak saldu zituen. Ardiei belarria markatzen zien. Aharia abuztuaren erditik aurrera botatzen zuten. Berastegin erosten zituen ahariak. Ardien zaintzari buruzko azalpenak.

59. 12 urterekin morroi (LIZ-004/031)

12 urte zituela joan zen morroi Ernialdera. Han bi urte egin, eta Amezketara joan zen morroi. Nagusia tratantea zen, eta ganaduekin estraperloan ibili behar izaten zuen.

60. Artilea (LIZ-004/032)

Garai batean, artileak estimazio handia izan zuen. Artile kiloa 22 duron saldutakoa omen da Julian. Joxe Marik, berriz, koltxoia berritzeko artile kiloko 20 duro ordaindu omen zuen. Ardi-mozten guraizeekin aritzen ziren.

61. Traperoa eta artilea (LIZ-004/034)

Traperoak etxez etxe ibiltzen ziren, eta haiei saltzen zien artilea. Traperoek denetik erosten zuten: artilea, arropa zaharra, tomate poteak, abarka zaharrak... Artilearekin mantak, berokiak, sokak... egiten ziren. Lehen artileak estimazio handia zuen: lehengo prezioa eta gaur egungoa alderatzen dute.

62. Haria egitea (LIZ-004/035)

Emakumeak aritzen ziren artilearekin haria egiten. Haria nola egiten zen azaltzen du Joxe Marik. Haria egiteko tresna: txaratila. Etxean egindako artilezko galtzerdiak "ederrak izaten ziren".

63. Arropa faltan (LIZ-004/036)

Garai bateko arropa segituan hausten omen zen. Lantegirako arropa etxetik eraman behar izaten zuten. Soldadu garaian, arropa harrapatzen ibiltzen ziren etxerako.

64. Ardi-esnea (LIZ-004/037)

Egunean bitan jezten zituzten ardiak, goizean eta iluntzean. Oraingo ardiek esne gehiago ematen dutela diote Zinkunegi anaiek. Ardi-esnearekin gazta egiten zuten.

65. Gazta egiteko prozesua (LIZ-004/038)

Ardiak eskuz jezten zituzten. Gazta nola egiten zuten azaltzen du. Kilo bateko gazta egiteko zazpi litro esne behar izaten ziren. Behi-esnearen eta ardi-esnearen arteko aldea: ardi-esnea lodiagoa izaten da, sebo gehiago izaten du.

66. 15 urterekin, 'Insalus'en lanean hasi (LIZ-004/042)

'Insalus' lantegian lanean nolatan hasi zen kontatzen du. 15 urtetik 18 urtera arte egin zuen lana bertan. Lanean hasi zenean, 15 pezetako jornala zuen. 'Insalus'en zer lan egiten zuen azaltzen du.

67. 'Araxes' paper-lantegia (LIZ-005/003)

'Araxes' paper-lantegiko kontuak. Joxe Mari 23 urtekin hasi zen lantegi horretan lanean. Julian, berriz, 14 urtekin hasi zen. Trapu zahar, zaku, soka... erabiltzen ziren papera egiteko. Trapua sailkatua egiten zen (kolore eta tramu motaren arabera). Lana nola egiten zuten azaltzen dute.

68. Paper-lantegiko kontuak (LIZ-005/004)

'Araxes' paper-lantegiko kontuak. Gerra ondoren, pastarekin hasi ziren papera egiten. Lantegiaren mendeurrena. Inguruko herrietako jende asko aritu zen lantegi horretan lanean.

69. Instrukzioak (LIZ-005/006)

Gerra denborako oroitzapenak. Erreketeei instrukzioak irakasten zizkien plazan, eskolatik atera eta gero. "Txapel gorriak".

70. Errazionamenduko ogia (LIZ-005/007)

Errazionamenduko ogia: beltza, gogorra eta biribila izaten zen. Esnetan txiki-txiki eginda jaten zuten ogia.

71. Euskara gutxietsia (LIZ-005/008)

Eskolan euskara debekatuta. Euskaraz jakin eta ez hitz egiteko joera omen zegoen. Tolosara neskame joaten ziren neskek erderaz egiteko ohiturarekin bueltatzen ziren herrira. "Caseros tontos" esaten omen zien.

72. 'Frente de juventudes' (LIZ-005/009)

Tolosako 'Frente de Juventudes'. Orduko giroa. Falangistek euskaldunak gutxietsi egiten zituzten.

73. Euskararekiko sentimendua (LIZ-005/010)

Aurreneko hitza euskaraz egiteari buruz hitz egiten dute. "Euskarak ez du maldiziorik". Komunio handia egiten eta gero eskean aritzen ziren, kantuan. Abestu egiten dute.

74. "80 urten inguruan gaude..." bertsoak (LIZ-005/011)

"80 urten inguruan gaude..." bertsoak kantatzen ditu Joxe Marik. Bertsozaletasuna lehen eta orain. Bertso-giroa festetan.

75. Apaiza eta alkatea bertso-saioak zaintzen (LIZ-005/012)

Joxe Mari eta Julian mutil kozkorra zirela 'Zepai' eta 'Uztapide' bertsolariak joaten ziren Lizartzara. Bertsolariek ezin izaten zuten emakumeei buruz egin bertsoan apaiza eta alkatea zaintzen egoten ziren. Basarriren bertso bat abesten du Joxe Marik.

76. 'Uztapide'ren hiru bertso (LIZ-005/013)

Uztapideren hiru bertso kantatzen ditu Joxe Marik. Uztapidek, baserritar baten paperetik, harakin bati esandakoak.

77. 'Lazkao Txiki'ren bertso bat (LIZ-005/015)

'Lazkao Txiki'ren bertso bat kantatzen du Joxe Marik. Kontzientziari buruz ari da.

78. Emakumeak, galtzak eta gonak (LIZ-005/017)

Gazte denboran ez zuten emakume bertsolaririk ezagutu. Emakumeak galtzak janztega gaizki ikusia zegoen.

79. Ikatz zakuak eta pistola (LIZ-005/018)

Traperoak latak, trapu zaharrak... biltzen zituen diru truke. Herrian bazen traperoa, nor zen azaltzen dute. Mutikoa zela, zortzi kilo trapuren truke (ganbaran ikatz zakuak biltzen aritu zen), pistola hartu zuenekoak kontatzen du Joxe Marik.

80. Umetako jolasak (LIZ-005/019)

Jolas "baldarretan" ibiltzen ziren: gurdiaekin, gerraketan, harrika, gordeketan... Alpargatak ez hausteko, hanka-hutsik ibiltzen ziren pilotan.

81. Erlojua eta etxeratzeko ordua (LIZ-005/022)

Joxe Marik 19 urterekin erosi zuen erlojua Tolosako 'Esmeralda'n. 375 pezeta ordaindu zituen erlojuagatik. Mutilei ez zien etxeratzeko ordurik jartzen;

emakumeei, berriz, bai. Gaizki ikusia zegoen behin eguna ilunduta neskak kalean ibiltzea.

82. Janzkera: galtza bizkaitarrak (LIZ-005/024)

Lehengo bizimodua eta oraingoa alderatzen dituzte: orain libertade handiagoa dago. Arropa aukera gutxi izaten zen. Gabezia: alkandora bakarra. Galtza bizkaitarrak janzten zituzten. Gantzontziloak, alkandora, kamiseta...

83. 14 urterekin gaua kartzelan pasatu (LIZ-005/027)

14 urterekin, morroi zegoela, kartzelan sartu zuten Joxe Mari (beste lagun batekin batera) arrantza egiteagatik. Donostiako Ondarretako espetxera eraman zuten bost egunerako, baina aitak hurrengo egunean atera zuen handik. Ziega nolakoa zen azaltzen du.

84. Kartzelako egonaldia (LIZ-005/028)

14 urterekin, morroi zegoela, kartzelan sartu zuten Joxe Mari (beste lagun batekin batera) arrantza egiteagatik. Donostiako Ondarretako espetxera eraman zuten. Espetxean, ezer ulertuko ez balu bezala egiten zuen Joxe Marik, lehenago askatuko zutelakoan. Jatekoari uko egiten zion. Sukaldaria eraman zioten ziegara euskaraz egin ziezaion, baina Joxe Marik dena ulertzen zuen.

85. Eskolan, brodatzen ikasi (LIZ-006/003)

Eskola garaiko kontuak. Zazpi-zortzi urte zituela hasi zen Lizartzako eskolan. Eskola non zegoen esaten du. Gustura joaten zen eskolara; brodatzen ikasi zuen. Oinez egin ohi zuen baserritik eskolarako bidea.

86. Egunean bitan behiak jetzi behar (LIZ-006/005)

Sei behi eta idi pareak zituzten baserrian. Astoarekin joan ohi ziren esnezalearengana, esne bete marmidak otarretan jarrita. Egunean bi aldiz jezten zuten esnea; behiak umea egindako garaian, hiru aldiz ere jetzi ohi zuten.

87. Esne-ontziak atarian, hozteko (LIZ-006/007)

Behiak eskuz jezten zituzten. Kaminoa egin eta gero, esnea biltzeko tankea jarri zuten baserrian. Tankea ekarri aurretik, esnea ontzietan jarri eta atarian eduki ohi zuten, hozteko. Esnea esnezaleari saldu ohi zioten. Etxerako gazta egiten zuten.

88. Gazta nola egiten den I (LIZ-006/009)

Gazta nola egiten den azaltzen du. Arkume gatzaria, mamia...

89. Gazta nola egiten den II (LIZ-006/011)

Gazta nola egiten den azaltzen du.

90. Gazta nola egiten den III (LIZ-006/013)

Gazta nola egiten den azaltzen du.

91. Gazta zaharra (LIZ-006/015)

Gazta zaharra. Arrak jotako gaztarekin egin ohi da; zapore fuertea izaten du.

92. 24 urterekin Juangira ezkondu (LIZ-006/016)

24 urte zituela ezkondu zen Juangi baserrira. Juangin zenbat senide ziren aipatzen du.

93. Neskametzako kontuak (LIZ-006/018)

22 urterekin Tolosara joan zen neskame. Bi urte egin zituen neskametzan. Bederatzi umeko familia batean egon zen lanean. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du.

94. Suila, ura garraiatzeko (LIZ-006/020)

Etxean ez zuten urik. Emakumeek buru gainean suila jartzen zuten ura garraiatzeko.

95. Bataioa (LIZ-006/033)

Haurrak bataiatzea. Ama ez zen elizkizunera joaten. Ohiturak.

96. Haurrari bularra ematea (LIZ-006/034)

Haurrak bularrarekin hazi zituen. Titia zenbat denboran eman zien...

97. Eskolan, 'Cara al Sol' eta dotrina (LIZ-007/013)

Eskolako oroitzapenak. Ez zen egunero joaten eskolara; etxeko lanetan lagundu behar izaten zuen. Eskolan, Cara al Sol kantatu behar izaten zuten Espainiako banderaren aurrean. Maistra erdalduna zen, eta apopilo zegoen herriko etxe batean. Dotrinari eskolari baino garrantzia gehiago ematen zioten gurasoek. Eskola non zegoen azaltzen du.

98. Eskolan, 11 urtera arte (LIZ-007/015)

Eskola garaiko kontuak. Umeek ez zekiten gaztelaniaz. Adin tarte ezberdineko neska-mutilek elkarrekin ikasi ohi zuten. Joxepa 11 urtera arte ibili zen eskolan.

99. Umetako jolasak (LIZ-007/017)

Umetako jolasak aipatzen ditu: gordeketan, boteketan, harrapaketan, pilotan, sokasaltoan... Hainbat jolas azaltzen ditu.

100. Anaia, errepublika garaiko eskolan ibilia (LIZ-007/020)

Anaia zaharrenarekin sei urteko aldea du Joxepak. Anaia errepublika garaiko eskolan ibili zen, eta euskaraz ikasi zuen.

101. Dotrina eskola baino lehenago (LIZ-007/022)

Lehen, eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen. Eskola baino garrantzitsuagoa zen dotrina. Baserriko lanetan geratu eta eskolara ez joanagatik, arratsaldetan dotrinara joan ohi ziren.

102. Eskola, gaztelaniaz; dotrina, euskaraz (LIZ-007/023)

Eskolako eta dotrinako kontuak. Noiz hasi zen eskolan, eta 11 urterekin utzi zuen. Joxepa ez zen egunero joaten eskolara, eta eskolak jarraitzeko zailtasunak izaten zituen. Eskola gaztelaniaz izaten zen; dotrina, berriz, euskaraz.

103. Etxeko giroa (LIZ-007/027)

Gurasoek ez zuten izaten seme-alabekin jolasteko denborarik. Bederatzi anai-arreba ziren, eta gurasoek, lehen, umeak gogorrago hartzen zituztela dio.

104. Amaren hutsunea (LIZ-007/032)

Joxepak 14 urte zituela hil zen bere ama. Amak utzitako hutsuneaz hitz egiten du.

105. Tolosan ere dontzeila (LIZ-007/035)

Donostian dontzeila egon eta gero, Tolosako familia batera joan zen dontzeila. Izeba baten bidez bilatu zuen lan hori. Zer etxetan aritu zen lanean azaltzen du.

106. Garai bateko Tolosa (LIZ-007/037)

Tolosan dontzeila egon zen etxe ingurua nolakoa zen azaltzen du. Tolosan dontzeila urte eta erdi egin zituen.

107. Herriko izenak eta toki izenak (LIZ-008/010)

Garai batean, Lizartzan bost taberna ziren. Toki-Alai tabernari "Luixene" esaten zioten, bertako aitonagatik. Kaxianoren etxea, berriz, "Kaxane" izenez ezagutzen omen da.

108. Kaxiano, soinua bizibide (LIZ-008/012)

Kaxianoren soinujole ibilbideari buruz hitz egiten du. Ezkontza ugaritan jotzen zuen. Sei disko eta bilduma atera zituen... Soinutik atera zuen bizimodua.

109. Burura etorritako guztia grabatu (LIZ-008/013)

Kaxianok kantak nola egiten zituen azaltzen du. "Bertsolaritzan ere bastanten aritzen zen, eta nik uste horrek eman ziola bere erraztasuna kantuak egiteko" dio Joxepak senarragatik. Burura etorritako guztia grabatzen zuen.

110. "Carnet de músico" (LIZ-008/015)

Kaxianori buruz hitz egiten du. Bolada batean, ezkontza askotan jotzen zuen. "Carnet de músico" atera behar izan zuela kontatzen du.

111. Eskolako oroitzapenak (LIZ-009/001)

Eskola garaiko kontuak. Zenbat urterekin hasten ziren; bost-sei urterekin. Irakasleak: Mari Karmen Jauregi maistra, "Xague" esaten zioten beste bat. Zigorrak. Eskolan erdaraz hitz egiten behar izaten zen

112. Dotrina euskaraz eta erdaraz (LIZ-009/002)

Dotrinari buruz hitz egiten dute. Eskolan, erdaraz ikasten zuten dotrina; elizan, berriz, euskaraz.

113. "Viva España" kantatu behar (LIZ-009/003)

Eskola garaiko kontuak. "Viva España" kantatu behar izaten zuten Espainiako banderaren aurrean.

114. Lau kilometro egunero (LIZ-009/005)

Eskolara oinez joan behar: egunean, lau kilometro egiten zituen joan-etorrian. Bakarrik egiten zuen bidea, anaiak alde egiten zion.

115. Txotxak biltzera erreka ondora (LIZ-009/006)

Etxean zer lan egin behar izaten zituzten: txotxak biltzera joan behar izaten zuen erreka bazterrera. Eskolatik atera eta etxera joan behar izaten zuen; ez zen jolasean geratzen.

116. Aitei buruz (LIZ-009/009)

Sagrario Soroak gogoratzen du txotx asko biltzen zituenean aitak eztarriako hartu ohi zuen pastilla "Richelieu" bat ematen ziola; sari moduan. Maria Zinkunegik, berriz, aitak errieta egiten ziola esaten du.

117. Patatak zuritu behar (LIZ-009/010)

Luxia Garmendia eskolatik atera eta etxera joan behar izaten zuen afaritarako patata zuritzera, baina berak patatak alde batera utzi eta lagun batekin kalera ateratzea nahiago izaten zuen. Gero, lagunak laguntzen zion patatak prestatzen. Nolako patatak izaten ziren azaltzen du.

118. Eskolara joatea (LIZ-009/012)

Eskolako kontuak. Batzuk egunero joaten ziren eskolara. Besteak, berriz, sarritan eskolara joan gabe gelditzen ziren baserriko lanetan lagundu behar izaten zutelako.

119. "Marimutil hutsak" (LIZ-009/013)

Umetako jolasak: gordeketan, txorro-morroka, sokasaltoan, txingoan, potoketan... Klean ibiltzen ziren jolasean, automobilik ez zen ibiltzen eta. Muñeka: abiarekin egindakoa. Gurasoek egindako sakrifizioak.

120. Txakurrak soinekoa puskatu (LIZ-009/014)

Umetako kontuak. Auzoko txakur bateak soinekoa puskatu zionekoa. Aldatzeko beste soinekorik ez, eta amak soinekoa josi eta berriz joan zen lagunengana.

121. Kartera ostu (LIZ-009/015)

Umetako kontuak. Kartera ostu eta dirua galdutakoak. Askarateko erromerian dirua galdu zuteneko pasadizoa. Egunerokoan ez zen goxokirik jaterik izaten.

122. Umetan jasotako opariak (LIZ-009/016)

Ettxekoek egindako opariak: sandaliak, komunioa egiteko zapatak, estutxea, josteko tresnak, bururako zintak...

123. Gizonak eta taberna (LIZ-009/017)

Gizonek erabiltzen zuten dirua. Gizonak eta tabernako joera. Gurasoen arteko harremana. Aitei buruz hitz egiten dute.

124. Fruta lapurtzera (LIZ-009/018)

Umetako kontuak. Udazkenean, fruta lapurtzera joaten ziren. Jolas asko egiten zuten. Bizilagunekin nolako harremana zuten.

125. Tomate potea bota (LIZ-009/019)

Jolasean zebiltzala baserritik tomate potea bota eta guardia zibilak parean tokatu zireneko pasadizoa.

126. Zorroztaileak (LIZ-009/020)

"Txorrozkileroak". Aitona eta amona batzuk ibiltzen ziren "¡Afilador!" esanez kalean barrena. Gaiztakeria: zorrozkileroari harria bota zionekoa.

127. "Karatxoa" eta katu-hestezko pilota (LIZ-009/021)

Herrian bazen emakume bat aurpegian "karatxo" handi bat zuena. Jolasean zebilela, pilota bota zion aurpegira eta "karatxoa" atera zion. Korrika alde egin eta ezkutatu egin zen. Pilota: katu-hestearekin egindakoa.

128. Inklusako ahizpa (LIZ-009/022)

Umetako kontuak. Ahizpa bat inklusakoa zen. Gaiztakeria: behin harekin haserretu eta "ez zela gurea" (inklusakoa zela) esan zion. Gurasoak asko haserretu ziren, eta haien errieta ez entzuteko bizilagunen etxea joan zen lo egitera.

129. Dotrina (LIZ-009/023)

Dotrina zaila omen zen. Dotrina erdaraz esaten dute: "Cree en Dios padre todo poderoso...". Don Gregorioren makila zuriari beldurra zioten: dotrina ez zekienari makilarekin jotzen zion. Bi komunio egin behar izaten ziren.

130. Neskametzatik komentura (LIZ-009/025)

Neska gazteak zirela neska bidali zituzten. Emakume batek kontatzen du Orexan hiru urte neskame egin eta gero, Elizondoko komentu batera bidali zutela. Oso gaizki pasa zuen. (Hika kontatzen du pasadizoa). Apaizaren laguntzarekin etxekoei jakinarazi zien ez zuela komentuan egon nahi, eta bere bila joateko. Elizondoko komentutik atera eta kamioilari batek lagundu zion trenean Iruneraino.

131. Tropak Lizartzara heldu zirenekoa (LIZ-010/002)

Gerraren hasiera gogoan dute laurak. Luxiak etxetik nola atera zituzten kontatzen du: aita aguazila zuen eta honek eman zien gertu zeudenaren berri. Mariak ondo gogoan dauka Santiago eguna zela eta meza entzun behar izan zutela aurretik. Bazkaltzen ari zirela, apaiza ikusi zuten maiz zuriarekin ermitan behera bazetozela esanez. Denbora gutxi egin omen zuten Lizartzan. Ez pasatzeko, ikatz zakuekin parapetoak egin zituzten eta baita zulo handiak ere. Leaburu eta Txaraman kalte handiagoak eragin omen zituzten.

132. Gerraosteko gosea (LIZ-010/004)

Gerraostea okerragoa izan zen ordea. Gose handia eta jaki eskasia bizi izan zuten. Bizilagun bati gertatutako anekdota kontatzen du.

133. Hildakoein buruz (LIZ-010/007)

Ume asko ekartzen zituzten familiek nahiz eta zailtasun handiak bizi. Hildako haur asko izaten zen garai hartan. Linbora joaten omen zien. Bere burua galdu zuen gizon bati buruz ere ari dira, bekatuan hil zelako hiletarik ez omen zioten egin. Anekdotak bat kontatzen du Sagrariok.

134. Lan eta lan, besterik ez zegoen (LIZ-010/009)

Sagrario Soroa hamahiru urterekin joan zen neskame. Ezkondu aurretik, bost urte egin zituen fabrikan.

135. Medikuaren etxean irratia entzuten (LIZ-010/011)

Berrikuntzak. Arropa garbigailua, argindarra, telefonoa eta horrelakoak noiz eta nola iritsi ziren kontatzen dute. medikuak omen zen herrian irratia zuen bakarretakoa.

136. "A realito la tirada" Orexako jaietan (LIZ-010/013)

Orexako jaiak dituzte gogoan. "A realito la tirada" esaten zuen barkillo-saltzaileak. Txokolatea hartzera ere joaten ziren bertara. Jaiekin lotutako hainbat anekdota kontatzen dute. Gurasoek ere ahalegin handia egiten zuten jaietan. kanpotik gonbidatuak jasotzen zituzten etxean.

137. Nobio kontuak (LIZ-010/014)

Hamasei urterekin hasi zen Sagrario Soroa senargaiarekin. Gazte ezkontzen ziren orokorrean. Ezkondu eta berehala umeak ekarri behar zituzten gainera. Nobio bila nola ibiltzen ziren kontatzen du. Orduan, neska gizen eta sendoek mutil gehiago izaten zuten atzetik.

138. Apretan ez bustitzearren oinutsik etxera (LIZ-010/018)

Gaur egun oso ondo bizi garela diote. Ordukoarekin konparatzen dute. Arropa gutxiago zuten lehen; konpondu egin behar izaten zituzten dirurik ez zegoelako.

139. Emakumea, lehen eta orain. (LIZ-010/020)

Emakumeak ez zuen lehen gaur egun bezainbeste eskubide. Senarraren aurrean amore eman behar izango zuela beti esan zion Sagrariori aitak ezkondu aurretik. Etxeko lanen banaketaz ari dira.

140. Eskola eta dotrina (LIZ-011/005)

Dotrina buruz ikasten zuen, eta zaila omen zen. Behinola, apaizak dotrina galdetu zionekoa kontatzen du. Ume batzuk partikular ibiltzen ziren lezioak ikasteko: Anjelak ez zuen denborarik ardiekin ibili behar izaten baitzuen. Gutxi ikasi zuen gaztelania.

141. Umetako jolasak (LIZ-011/008)

Umetako oroitzapenak. Ez zuten panpinarik. Umetako jolasak aipatzen ditu: sokasaltoan, "hankak gordeta"... Neskak bakarrik ibiltzen ziren jolasean.

142. Baserrian, sail handiak (LIZ-011/011)

Denbora gutxian ibili zen eskolan. Baserrian lan handia izaten zen: artoa, babarruna, garia... lantzen zituzten. Sail handiak egiten zituzten. Ogia eta taloa etxean egiten zituzten.

143. Lizartzako errota (LIZ-011/012)

Lizartzan bi errota ziren. Errota bat Orexara bidean omen zen. Anjelaren etxekoak Tolosako errota batera joan ohi ziren.

144. Errotaren funtzionamendua (LIZ-011/014)

Errotaren funtzionamenduaz hitz egiten du. Lakarekin ordaindu ohi zitzaion errotariari; eramandako arto edo gariaren hainbesteko bat izaten zen. Diru pixka bat ere eman ohi zitzaion errotariari.

145. Ogia nola egiten den (LIZ-011/015)

Ogia etxean egiten zuten. Legamia Tolosan erosten zuten, drogerian. Ogia nola egiten den azaltzen du. Orexan ogi asko egiten zela dio.

146. Ogia, gari-irinarekin; taloa, arto-irinarekin (LIZ-011/017)

Ogia gari-irinarekin egin da. Taloa, berriz, arto-irinarekin.

147. Taloa nola egiten den (LIZ-011/019)

Taloa nola egiten den azaltzen du.

148. Artoa (LIZ-011/022)

Baserriko uztak. Artoa nola jorratzen zuten azaltzen du. Lursail handiak zituzten.

149. Eguzkia (LIZ-011/023)

'Ipintza' baserria erreferentzia hartuta, eguzkia nondik ateratzen eta sartzen den azaltzen du. Egutera eta ospela, biak behar dira uztan emateko.

150. Tolosara, tratura (LIZ-011/026)

Tolosara joaten ziren baserriko jeneroa saltzera. Babarruna, untxiak, oilaskoak, kapoiak... saldu ohi zituzten. Oilaskoak nola irentzen diren azaltzen du. Leaburutik barrena joaten ziren Tolosara; oinez, 'Correo'-an...

151. 'Zerkausi'-ko giroa: tratua eta prezioa (LIZ-011/027)

'Zerkausiko' giroa. Hondarribia, Donostia... inguru horietatik "biltzaileak" joan ohi zen baserriarren jeneroa erostera. Plazako tratua eta prezioak nola izaten ziren azaltzen du.

152. Tratuan ateratakoarekin erosketak egin (LIZ-011/029)

Tratua ateratako diruarekin, erosketak egiten zituen Tolosako dendetan. Arroza, txokolatea, azukrea, kafea... erosi ohi zituen.

153. Tolosara, idiak ferratzera (LIZ-011/031)

Tolosara eramaten zituzten idiak ferratzera. Lizartzatik Tolosara oinez joaten ziren idiekin. Tolosan ferratokia non zegoen azaltzen du.

154. Artilezko koltxoia (LIZ-011/037)

Artilezko koltxoia nolakoak izaten ziren azaltzen du.

155. Lizartzan auto bakarra zenekoa (LIZ-011/039)

Anjela gaztea zenean, Lizartzan auto bakarra omen zen. Jabeak jendea Tolosara eramaten omen zuen. Anaia batek "moto vespa" bat zuen.

156. Baltsa eta suelta (LIZ-011/043)

Festa egunetan, gaueko 12:00ak jotzerako etxera joan behar izaten zuen. Behinola, dantza kontuak zirela eta Lizartzan jendea haserretu egin omen zen: beheko plazan baltsean egin omen zuten; goian, berriz, suelta. Anjela suelta aritzen omen zen.

157. Medikua eta gaixotasunak (LIZ-011/050)

Gazte garaian, ohikoak izaten ziren gaixotasunak: katarroa, biriketakoa... Lehen jendea gazteago hiltzen omen zen. Medikua "xahar" bat ibiltzen omen zen Lizartzen.

158. Laborea eta basolanak (LIZ-011/057)

Baserriko lanak. Laborea nola egiten zen azaltzen du: lau lagun aritzen ziren laian lurra biratzen. Menditik garoa ekartzen zuten behie azpiak egiteko; pinuak sartzen zituzten basoan...

159. Gaztetatik ogia egiten aitarekin... (LIZ-012/003)

Eskola garaiko oroitzapenak. Eskola eta etxeko zereginak... biak uztatzen zituen. 11 urte zituela, goizeko bostetarako jaikitzen zen aitari ogia egiten laguntzeko. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Ogia erretzeko labera nola prestatzen zuten kontatzen du.

160. Ogia egiteko goiz jaiki beharra (LIZ-012/007)

Egunean behin egiten zuten ogia; goizean. Pelloren aita goizeko bostak baino lehenago hasten zen lanean; dena prestatu ondoren, Pello esnatzen zuen. Aitak nola esnatzen zuen kontatzen du.

161. Esnezaleak fondara (LIZ-012/009)

Lizartzako baserritarrek herrira jaisten ziren esnezaleari esnea entregatzera; hark Tolosara eramaten zuen esnea. Baserritarrek marmitak askan garbitzen zituzten. Gero, Fondara joaten ziren ardoa eta ogia eroatera.

162. Beste okindegi bat herrian (LIZ-012/011)

Lizartzan bazen beste okindegi bat. Non zegoen azaltzen du. Harreman ona zuten elkarrekin.

163. Mekaniko osabaren garajea (LIZ-012/013)

13 urte zituela, osabaren garajea hasi zen Tolosan. Mekaniko ikasten hasi zen. Uzturre zuen izena garajeak.

164. Motoa erosi (LIZ-012/016)

Bizikletan joaten zen osabaren garajera. 24 urte inguru zituela erosi zuen motoa, soldadutzatik bueltatu ondoren. Automobilerik zer prezio izaten zuten aipatzen du.

165. Tolosako garajeak (LIZ-012/022)

Uzturrez gain, baziren beste garaje batzuk Tolosan. Izenak aipatzen ditu: Elola, Moderno, Artola... Uzturre garajea, Azpeitiko autobusak ere konpontzen omen zituzten.

166. Tolosako feriara (LIZ-012/025)

Larunbat eta astelehenetan joan ohi zen Orexa eta Lizartzako jendea autobusean Tolosako feriara. Larunbatetan jateko gauzak egon ohi ziren; astelehenetan, ganadua.

167. 16 urterekin autoa gidatzen hasi (LIZ-012/028)

16 urte zituela hasi zen autoa gidatzen; 18 urtera arte ezin zen gidabaimena atera. Behinola, laneko kontu batengatik automobila hartu eta bidean guardia zibilak ikusi zituenekoa kontatzen du.

168. Gidabaimena ateratzeko azterketa (LIZ-012/029)

Autoko gidabaimena ateratzeko azterketa nolakoa izaten zen azaltzen du. Pellok bere kasa ikasi zuen autoa gidatzen: garajeko lanean, etxeko autoarekin... Autoeskolako kontuak nola izaten ziren... 250 pezeta kostatu zitzaion Pellori gidabaimena ateratzea.

169. Ogia etxez etxe banatzen (LIZ-012/033)

Pello osabaren garajea lanean hasi zenean, asteburuetan aritzen zen ogia banatzen etxez etxe. Arrebak banatu ohi zuen ogia astean zehar. Pello arduratzen zen bezeroei aste guztiko ogia kobratzeaz.

170. Orexara ogia eta posta eramatera (LIZ-012/034)

Astean behin edo bitan Orexara joaten zen ogia saltzera. Posta ere beraiek eramaten zuten. Mandoarekin joan ohi ziren.

171. Andregaia tabernan ezagutu (LIZ-012/041)

Pello tabernan ezagutu zuen andregaia. Gaur egun emaztea duena Tolosako taberna batean aritzen zen lanean.

172. Tolosako zinemak (LIZ-012/049)

Pello gaztea zela, Tolosan lau zinema areto zeuden: Gorriti, Iparragirre, Leidor eta udaletxe ondokoa. Igandetan joan ohi ziren zinera.

173. Hainbat herritan bizitakoa (LIZ-012/058)

36 urte zituela ezkondu eta Tolosara joan zen bizitzera. Tolosan urtebete egin eta gero, Anoetara joan ziren bizitzera. Anoetan 18 urte egin zituzten. Gero, Anoetatik Irurara joan ziren bizitzera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com